

# Eskura

ZUMAIAKO UDAL ALDIZKARIA · 2023ko otsaila · 06

## Haurrek marraztutako parkea egingo da Mariantonen
14

'Proiektu berriei begira' jartzeko aurrekontuak
06

Moilaberri eta Algorri eraberritzeko dirulaguntza
20

Larretxo auzuneko irisgarritasuna hobetzen
23

Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA

Alkatearekin, zinegotziekin eta oposizioko taldeekin harremanetan jartzeko:

## UDAL GOBERNUKO KIDEAK. EH BILDU

**Alkatea:**
Iñaki Ostolaza
*alkatea@zumaia.eus*

**Hirigintza, ingurumena, zerbitzuak eta auzoak:**
Iñaki Ostolaza
*alkatea@zumaia.eus*

**Tokiko garapena, ekonomia sustapena eta turismoa:**
Alex Oliden
*aoliden@zumaia.eus*

**Ogasuna:**
Arantxa Gajate
*agajate@zumaia.eus*

**Pertsonala:**
Asier Arakistain
*aarakistain@zumaia.eus*

**Euskara eta hezkuntza:**
Maddi Aldalur
*maldalur@zumaia.eus*

**Kirolak:**
Arritxu Iribar
*airibar@zumaia.eus*

**Kultura:**
Marina Bidasoro
*mbidasoro@zumaia.eus*

**Gizarte zerbitzuak:**
Jose Mari Azkue
*jazkue@zumaia.eus*

**Berdintasuna, gazteria, aniztasuna eta parte hartzea:**
Maider Alberdi
*malberdi@zumaia.eus*

## EAJ UDAL TALDEA

eaj@zumaia.eus
622 699 419 (deiak eta WhatsApp mezuak)

## PSE-EE UDAL TALDEA

arritxu-maranon@socialistas-guipuzcoanos.com

ESKURA
Zumaiako udal aldizkaria
2023ko otsaila
6. zenbakia

Lege gordailua
LG D 00145-2020

Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA

Twitter: @zumaiakoudala
Facebook: Zumaiako Udala

**UDALETXEA:** Foruen plaza · 943 86 50 25 · udala@zumaia.eus · www.zumaia.eus ·
**Neguko ordutegia:** 08:00-14:30

2021 Bikain euskararen kalitate ziurtagiria





Iñaki Ostolaza Esnal
**Zumaiako alkatea**

## Zumaiar agurgarria:

Hasi da urte berria. Etxekoekin eta lagunartean pasatu ditugu neguko opor epel hauek, eta, indarrak hartuta, 2023ari heltzeko momentua iritsi zaigu.

Gabonek ez digute egungo egoerarekiko kezka eraman, ordea. Kezkaz bizi dugu egunerokoa eta etorkizuna. Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da etorkizuneko erronkei aurrea hartzea. Horretan ari gara, eta horretan jarraituko dugu. Dena den, ez dugu egunerokoa ahaztu behar; ezinbestekoa da herritar guztiok bizitza duina izan dezagun bermatzeko lan egitea. Horretan ere jarriko ditugu gure indar guztiak.

Desesperantza garaiotan, babestu eta zaindu dezagun elkar. Goza dezagun bizitzaz, eta ez diezagutela irribarrea lapurtu. Besterik gabe, urte berri ederra opa dizuet herrikide guztiei.

**Urte berri on!**

## *Estimado/a zumaiarra:*

*Empieza el nuevo año. Hemos disfrutado de las cálidas vacaciones de invierno con familiares y amigos, y ahora, con las fuerzas renovadas, es momento de encarar este 2023.*

*Las Navidades no se han llevado consigo nuestra preocupación por la situación que vivimos. Preocupación por el día a día y por el futuro. Por eso, es más necesario que nunca anticiparse a los retos del futuro. En eso estamos, y en eso seguiremos. Ahora bien, no debemos olvidar el día a día; resulta imprescindible trabajar para garantizar que todos y todas las ciudadanas tengamos una vida digna. Y también en ello pondremos todas nuestras fuerzas.*

*En estos tiempos de desesperanza, protejámonos y cuidémonos mutuamente. Disfrutemos de la vida y que no nos roben la sonrisa. Sin más, os deseo a todos y a todas un muy buen año nuevo.*

***Urte berri on!***

Zumaia bizitzeko moduko herria izatea helburu duten 98 proiektu eta ekimenek osatzen dute 2019-2023 Gobernu Plana.

Gobernu Planaren jarraipenerako prestatutako webgunean kontsultatu dezakezu ekimen bakoitza zertan den:

**bizitzekoda.zumaia.eus**




Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA




**06**
**‘Proiektu berriei begira’ jartzeko aurrekontuak**



**14**
**Haurrek marraztutako parkea egingo da Mariantonen**



**20**
**Moilaberri eta Algorri eraberritzeko dirulaguntza lortu du Zumaiak**



**23**
**Larretxo auzuneko irisgarritasuna hobetzen**



**26**
**2023 amaieran hasiko dira Torreagako etxebizitzak eraikitzen**




**28**
**Zumaiak badu LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetzeko ekintza plana**



**31**
**Memoria historikoa eraikitzen**

**32 LABUR** AZKEN ALBISTEAK • **36 LABUR** OBRAK • **42 GERTUTIK** FOTOTEKA • **43 ATZO GAUR DA** • **48 ELKARRI ENTZUN** • **50 KLISK!** • **52 AGENDA**

# ‘Proiektu berriei begira’ jartzeko aurrekontuak

Mariantonen parke berria egitea, Erkibe inguruan estalpea eraiki eta ingurua egokitzea, eta auzoetan hobekuntzak egitea daude inbertsioen artean. Horiez gain, Aita Mari eraikinean haurreskola txertatu eta sukalde berria egiteko eta kiroldegia eraberritzeko proiektuak egitea jasotzen da aurrekontu proiektuan.

Zumaiako udal gobernuak 24,2 milioi euroko aurrekontu proposamena eraman zuen abenduaren 1ean egin zen osoko bilkurara. Udalak 23.531.253 euroko aurrekontu propioa izango du, eta Kirol Patronatuak 1.545.600 eurokoa. EH Bilduren aldeko bederatzi botorekin, EAJren aurkako bostekin eta PSE-EEko zinegotziaren abstentzioarekin egin zuen aurrera proposamenak.

Zumaiak inoiz izandako aurrekontu handiena izango da, eta inbertsioen arloan handitu da gehien: 8,7 milioi euro bideratu nahi dituzte askotariko lanetara (2021ean 2 milioi euro jaso ziren aurrekontuetan, eta 5,5 milioi euro izan ziren 2022koetan). Beraz, 2022ko aurrekontuarekin alderatuta, inbertsioetan % 23ko igoera izango da. Inbertsio guztien artean pisu handiena Komentua eraberritzeak eta kaleko argiteriaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanek izango dute, baina aurrerapauso garrantzitsuak egingo dira energiaren arloan, kirol azpiegituretan, hezkuntzaren arloko azpiegituretan nahiz auzoetan ere. Bestalde, arlo soziala indartu egin dute, eta proiektu zehatzetan jarri dute arreta.

*El Gobierno municipal de Zumaia llevó al pleno del 1 de diciembre una propuesta presupuestaria de 24,2 millones de euros. El Ayuntamiento dispondrá de un presupuesto propio de 23.531.253 euros y el Patronato de Deportes de 1.545.600 euros. La propuesta salió adelante con nueve votos a favor de EH Bildu, cinco en contra del PNV y la abstención de la concejala del PSE-EE.*

*Se trata del mayor presupuesto de la historia de Zumaia y tendrá su mayor incremento en materia de inversiones, con 8,7 millones de euros para obras diversas (en 2021 se presupuestaron 2 millones de euros, y en 2022 el presupuesto fue de 5,5 millones de euros). Esto supone un incremento del 23 % en las inversiones respecto a 2022. El mayor peso lo tendrán la reforma del Convento y las obras de mejora en la eficiencia energética del alumbrado urbano, pero se harán avances importantes también en el ámbito energético, en infraestructuras educativas, deportivas, así como en los barrios. Además, se ha reforzado el ámbito social, poniendo el foco en proyectos concretos.*

***24,2 milioi euroko aurrekontua izango du Zumaiako Udalak 2023an.***

## Arlo sozialean proiektu zehatzak

Azken urteotako ildo beretik, arlo soziala ere indartu dute. Hiru proiektutan jarri nahi izan du azpimarra udal gobernuak.

### ZAINTZA

Gizarte zerbitzuei dagokienez, Prebentzio Mahaiaren baitan zaintzaren gaia lantzen hasteko 18.150 euroko partida bat txertatu da. Horrez gain, gizarteratzea lantzeko 20.000 euroko partida berria sortu da; gizarteratzea eta inklusioa herri mailan nola landu daitekeen aztertzeko prozesua abiatuko da partida horrekin.

### BERDINTASUNA

Berdintasun Sailari dagokionez, % 10 handitu da partida. Horren barruan, besteak beste, Emakumeon* Etxea elkartearekin egindako hitzarmenean % 80ko igoera onartuko dute; elkarteak egindako ibilbide oparoa ikusita, Emakumeon* Etxea bera eta bertan ematen diren zerbitzuak indartu nahi dira.

### EKONOMIA SOZIALA

Ekonomia soziala eta kooperatibak sortzea sustatzeko ekimenetarako 18.150 euroko partida txertatu da aurrekontuetan. Iaz ZKOOP proiektuarekin hasitako bideari jarraipena emango zaio partida horrekin, eta Hogarrean elkarlangunea martxan jartzeko baliatuko da.







---

*Siguiendo la linea de los últimos años, se ha reforzado el ámbito social. En ese sentido, el Gobierno municipal ha querido subrayar tres proyectos.*

### *CUIDADOS*

*En el caso de los servicios sociales, se ha incluido una partida de 18.150 euros para empezar a trabajar el tema de los cuidados en el seno de la Mesa de Prevención. Además, se ha creado una nueva partida de 20.000 euros, con la que se pondrá en marcha un proceso de análisis de cómo se puede trabajar la inclusión social y la inclusión a nivel local.*

### *IGUALDAD*

*En lo que respecta al área de igualdad, la partida ha aumentado un 10 %, lo que supondrá, entre otras cosas, un incremento del 80 % en el convenio con la asociación Emakumeon* Etxea. En vista de la fructífera trayectoria de la asociación, se pretenden reforzar el espacio y los servicios que se prestan en él.*

### *ECONOMÍA SOCIAL*

*Se ha incluido una partida de 18.150 euros para iniciativas para el fomento de la economía social y la creación de cooperativas. Siguiendo el camino iniciado el año pasado con el proyecto ZKOOP, la partida servirá para la puesta en marcha del espacio de coworking en el Hogar.*

## Estalpea, herritarrek hala erabakita

Aurrekontuak prestatzeko prozesuan berrikuntza bat txertatu zuten iaz, eta herritarrek zuzenean parte hartu ahal izan dute, 2023an eta 2024an 500.000 euro zertara bideratu erabakitzeko.

2023an, honako proiektu hauek txertatuko dira:

- Paolean igerilekua egiteko azterketa egitea (18.150 euro).
- Eraikin publikoetan eguzki panelak jartzea (75.000 euro).
- Estalpea egitea (125.000 euro).
- Haur parkeetan hobekuntzak egitea (35.000 euro).

Estalpea Erkibe eraikinaren inguruan egitea da aukeretako bat, eta, kasu horretan, proiektua osatzeko asmoa du udal gobernuak.

Ingurua egokitu eta Eusebio Gurrutxaga plazarekin bateratzea da asmoa. Horregatik, 125.000 euroko diru partidari (herritarrek erabakitakoa) beste 350.000 euro gehitu dizkiote; horrela, osotara 500.000 euro erabiliko dira gunea egokitzeko.

Horrekin batera, Erkibe eraikinaren erabileraren inguruko hausnarketan murgilduta daudela zehaztu dute. Udal gobernuaren asmoa da Erkibe eraikina eraberritzea eta, han, Azpeitiko Elikagunea proiektuaren antzeko bat martxan jartzea. Horrekin batera, ostegunetako azoka birpentsatu eta indartu nahi dute. Azkenik, Erkibeko gune hori ekonomia soziala sustatzeko bide bat izatea nahiko lukete, eta, horregatik, elkarlangunea eraikin horretan kokatzea ere aztertzen ari dira.



Argazkia: Baleike




---

*El pasado año se introdujo una novedad en el proceso de elaboración de los presupuestos, por lo que la ciudadanía tuvo la oportunidad de participar directamente en el proceso de decidir a qué destinar 500.000 euros en los años 2023 y 2024.*

*Los proyectos a incorporar en 2023 son:*

- *Estudio de la posible piscina natural (18.150 euros).*
- *Colocación de placas solares en edificios públicos (75.000 euros).*
- *Construcción de un espacio cubierto (125.000 euros).*
- *Mejoras en los parques infantiles (35.000 euros).*

*Una de las posibles localizaciones para el espacio cubierto es el entorno del edificio Erkibe, en cuyo caso el Gobierno municipal tiene previsto completar el proyecto.*

*La idea es adecuar el entorno y unificarlo con la plaza Eusebio Gurrutxaga, por lo que a la partida de 125.000 euros, acordada por la ciudadanía, se le han añadido otros 350.000 euros, con lo que se destinarán un total de 500.000 euros para acondicionar el espacio.*

*Junto a ello, el Gobierno municipal ha precisado que están inmersos en un proceso de reflexión sobre el uso del edificio Erkibe. El propósito sería reformarlo y poner en marcha un proyecto similar al de Elikagunea de Azpeitia. Además, tienen por objetivo repensar y reforzar el mercado (azoka) de los jueves. Por último, desearían que el espacio de Erkibe fuera una vía de promoción de la economía social, por lo que también están estudiando ubicar el espacio de coworking en el edificio.*

## Beste bi erronka potolo: kirol eta hezkuntza arloak

Iñaki Ostolaza alkatearen esanetan, “etorkizuneko erronkei aurre egiteko” prestatutako aurrekontuak dira hauek. Inbertsio nagusia Komentua eraberritzeari dagokio (5 milioi euro), eta kaleko argiteriaren eta semaforoen eraginkortasun energetikoa hobetzeko erabiliko dute beste kopuru handi bat (1,17 milioi euro).

Alkateak azaldu duenez, Komentuan Kultur Topagunea sortuz martxan jarriko den proiektuak “Zumaiako bizitza kulturalean pauso kualitatibo handia” ekarriko du, eta kaleko argiteria aldatzea urrats garrantzitsua izango da eraginkortasun energetikoaren aldetik.

Edonola ere, azken urteotan “beste arlo eta ildo estrategiko batzuetan ere buru-belarri” aritu dira: energia, elikadura, berdintasuna eta hezkuntza dira horietako batzuk. Kirol arloan eta hezkuntza arloan egin du azpimarra alkateak.

*Según el alcalde, Iñaki Ostolaza, se trata de unos presupuestos preparados para “afrontar los retos del futuro”. La principal inversión es la reforma del Convento (5 millones de euros), seguida de las labores de mejora de la eficiencia energética del alumbrado urbano y de los semáforos (1,17 millones de euros).*

*Tal y como ha explicado el alcalde, el proyecto que se va a poner en marcha en el Convento supondrá un gran paso cualitativo en la vida cultural de Zumaia, y el cambio de la luminaria será un paso importante en términos de eficiencia energética.*

*De todas maneras, en estos últimos años el Gobierno municipal también se ha volcado en otras áreas y líneas estratégicas, tales como la energía, la alimentación, la igualdad y la educación, entre los que el alcalde ha subrayado el ámbito deportivo y el educativo.*

# Kirolak

### KIROLDEGIA

Iaz aurreproiektua egin ondoren, aurten kiroldegia eraberritzeko proiektuaren idazketa egingo da. Bigarren igerileku bat egiteaz gain, kiroldegia barrutik eta kanpotik eraberritzea da asmoa. Horrekin batera, eraikinaren eraginkortasun energetikoa nabarmen hobetuko da (kiroldegiak du udal eraikin guztietatik kontsumo handiena). 2023an 250.000 euro erabiliko dira, proiektua idazteko, eta 2024an 330.000 euro, obra zuzendaritza prestatzeko (guztira, 580.000 euro).

### KIROLDEGIKO PISTA

Udalak jasotako eskaerak aintzat hartuta, 145.000 euro inbertituko dira Lubaki kiroldegiko pista konpontzeko. Eskubaloi taldeak eta Zumaiako eskolek asko erabiltzen duten eremu hori hobetuko da horrela.

### KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK

Kirol federatuei ematen zaizkien dirulaguntzak, bai eta kirol jarduerak antolatzeko partidak ere, handitu egingo dira.

### *POLIDEPORTIVO*

*Tras la elaboración del anteproyecto el año pasado, este año se redactará el proyecto de reforma del polideportivo. Además de realizar una segunda piscina, la idea es reformar el polideportivo por dentro y por fuera. Junto a ello, se mejorará notablemente la eficiencia energética del edificio (el polideportivo es el que mayor consumo tiene de entre los edificios municipales). En 2023 se destinarán 250.000 euros a la redacción del proyecto, y en 2024 330.000 euros a la redacción de la dirección de obra (580.000 euros, en total).*

### *LA PISTA DEL POLIDEPORTIVO*

*Atendiendo a las reiteradas peticiones, se invertirán 145.000 euros en la reparación de la pista del polideportivo Lubaki, mejorando así un espacio ampliamente utilizado por el club de balonmano y las escuelas de Zumaia.*

### *SUBVENCIONES DEPORTIVAS*

*También se realizarán incrementos en las subvenciones a los deportes federados, así como en las partidas destinadas a la organización de actividades deportivas.*



# Hezkuntza eta herri hezitzailea

Hezkuntzaren arloan ere pauso garrantzitsuak eman nahi dira 2023an zehar. "Herri hezitzailea" filosofiaren baitan egingo dute lan, gainera.

### HAURRESKOLA ETA SUKALDE BERRIAK

Aita Mari eraikinean haurreskola berria eta sukaldea egin nahi dira, eta proiektua idazteko 180.000 euro erabiliko dira. Udalak Hezkuntza Sailarekin eta herriko hezkuntza komunitatearekin —eskola, guraso eta langileekin— landu du oinarrizko proiektua.

### MARIANTONGO PARKE ESTALIA

Mariantonen parke berria egiteko 240.000 euroko partida txertatu da. Haurren Kontseiluak egindako eskaerak kontuan hartuta landu da proiektua, eta 2023an zehar egingo da parke berria Mariantongo eremu horretan. Herriko beste haur parkeak hobetzeko partidak ere txertatu dira aurrekontuetan: 41.000 euro guztira.

### SAGARBIDEN KONPONKETAK

Herriko ikastetxeetan beste inbertsio batzuk ere egingo dira: Sagarbide eraikinean gimnasioko sabaia konponduko da (28.000 euro).

---

*En el ámbito educativo también se quieren dar pasos importantes a lo largo de 2023. Trabajarán con la filosofía de "pueblo educativo".*

### *NUEVA HAURRESKOLA Y NUEVA COCINA*

*Se destinarán 180.000 euros a la redacción del proyecto de la nueva haurreskola y de la cocina en el edificio Aita Mari. El Ayuntamiento ha trabajado en el proyecto de base junto al Departamento de Educación y la comunidad educativa local (escuela, AMPA y trabajadores/as).*

### *PARQUE CUBIERTO DE MARIANTON*

*Se invertirán 240.000 euros en la construcción del nuevo parque cubierto de Marianton. El proyecto se ha completado teniendo en cuenta las peticiones del Consejo de la Infancia, y a lo largo de 2023 se construirá un nuevo parque en la zona situada en la calle Marianton. También se han incluido partidas para mejorar otros parques infantiles: 41.000 euros en total.*

### *MEJORAS EN SAGARBIDE*

*Se incluye una partida para otras inversiones en los edificios escolares: se reparará el techo del gimnasio del edificio Sagarbide (28.000 euros).*



## Auzoetan hobekuntzak

### SAN JOSE

San Jose kaleko etxebizitzetan igogailuak jarri ahal izateko berrurbanizazio lanak egiteko 556.000 euroko partida txertatu da.

### ESTAZIOA

Estazio kalea berrurbanizatzeko lanak egingo dira, lehentasuna oinezkoari emanda. 250.000 euro erabiliko dira horretarako. Lan horiek lizitaziora atera ziren iaz, baina ez zen enpresarik aurkeztu. Diru kopurua berregokitu da, eta udal gobernuaren nahia da bizilagunak aspalditik egiten ari diren eskaerak 2023an gauzatu ahal izatea.

### JUAN BELMONTE

Juan Belmonte kaleko ur hornidura hobetzeko 396.341 euro erabiliko dira.

### BIDE PUBLIKOAK

Bestelako hobekuntza batzuk ere egingo dira bide publikoetan, eta 225.000 euroko partida jaso da horretarako (beste urteetan baino 135.000 euro gehiago). Premia handiena duten eremuak asfaltatuko dira 2023an.

### LARRETXO

Larretxoko bigarren igogailua egiteko proiektua idazteko 44.286 euroko partida ere badago. San Telmo kalea eta Larretxo auzunea lotzen dituen igogailua egin ondoren, orain, Itzurunbidean kokatuko den igogailua egiteko lanetan murgilduta dago udala. Bizilagunekin batera landuko da proposamena, eta 2023an zehar behin betiko proiektua idaztea da asmoa.







### *SAN JOSÉ*

*Obras de reurbanización para posibilitar la instalación de ascensores en las viviendas de la calle San José: 556.000 euros.*

### *ESTACIÓN*

*Partida para la reurbanización de la estación priorizando al peatón: 250.000 euros. Las obras salieron a licitación el año pasado, pero no se presentó ninguna empresa. La cifra se ha reajustado y la propósito del Gobierno municipal es que las peticiones que vienen realizando los y las vecinas desde hace tiempo puedan materializarse en 2023.*

### *JUAN BELMONTE*

*Mejora del abastecimiento de agua en la calle Juan Belmonte: 396.341 euros.*

### *VÍAS PÚBLICAS*

*Otras mejoras en las vías públicas: 225.000 euros (135.000 euros más que otros años). A lo largo de 2023 se asfaltarán las zonas que estén en mal estado.*

### *LARRETXO*

*Redacción del proyecto del segundo ascensor de Larretxo: 44.286 euros. Tras la construcción del ascensor que une la calle San Telmo con el barrio de Larretxo, el Ayuntamiento está inmerso en el proceso de construcción del ascensor que se ubicará en Itzurunbidea. La propuesta se trabajará junto a los y las vecinas, y la idea es redactar el proyecto definitivo a lo largo de 2023.*

# 'EGOERA EKONOMIKO EGONKORRA'

Arantxa Gajate Ogasun zinegotziak Zumaiako Udalak egoera ekonomiko egonkorrean jarraitzen duela azpimarratu zuen osoko bilkuran. Haren esanetan, gainera, "azken urteotan egindako kudeaketa onari esker", dirulaguntza handiak lortu ditu udalak: Komentua eraberritzeko, PIREP programatik (Espainiako gobernua) 2.778.070 euro eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailetik 241.935 euro jasoko dira; eta Moilaberrin turismo bulego berria egiteko eta Algorri interpretazio zentroa berritzeko dirulaguntza ere lortu ditu udalak, 1.350.000 euro zehazki. Dirulaguntza horiek ez daude 2023ko aurrekontu proposamenean txertatuta, eta, beraz, behin betiko ebazpenak iritsitakoan, ondoren azalduko diren kopuruak "nabarmen hobetuko dira".

Foru Funtsetik 8,2 milioi euro jasoko ditu udalak; iaz baino gehiago. Arantxa Gajateren esanetan, baina, kontuan hartu behar da igoera horrek ez duela estaltzen pertsonaleko gastu arrunten eta zerbitzuen eguneraketak sortuko duen garestitzea.

Aurrekontu proposamenaren defizita 7,3 milioi eurokoa da. Edonola ere, udal gobernuak ez du aurreikusten mailegurik eskatu beharra. Gainera, defizit hori ez da udalaren ohiko jarduera estaltzeko erabiliko, 2023an egingo diren obrak finantzatzeko baizik.

Udal barruko egoera txukuntzeak igoera ekarri du hainbat arlotan: iraungitako esleipenak eguneratzeak, adibidez, gastuak igotzea ekarri du. Bestalde, aurreko urteetako ildo beretik, eta udal zerbitzuak hobetzeko asmoz, pertsonala indartzen jarraituko da: brigadarako langile berri bat kontratatzeaz gain, kultura arloan administrari berri bat kontratatuko da urte osorako, eta beste bat uda sasoian, errefortzu moduan. Kultura Sailak duen lan kargari erantzungo zaio horrela.

Azkenik, udalaren egoera ekonomikoa egonkorra dela nabarmendu zuen zinegotziak, eta irizpide nagusi hauek kontuan izanda osatu dituztela aurrekontuak: "anbizio handikoak, baina arlo ekonomikoaren ikuspegitik orekatuak, zuhurtasun printzipioan oinarrituak eta egingarriak".

---

*La concejala de Hacienda, Arantxa Gajate, destacó en el pleno que el Ayuntamiento de Zumaia sigue en una situación económica estable y que, además, "gracias a la buena gestión realizada en los últimos años, el Ayuntamiento ha conseguido importantes ayudas económicas: para la reforma del convento, 2.778.070 euros del programa PIREP (Gobierno de España) y 241.935 euros del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco; y para la nueva oficina de turismo en Moilaberri y la renovación del centro de interpretación Algorri, una subvención de 1.350.000 euros. Estas subvenciones no están incluidas en la propuesta presupuestaria de 2023 (por falta de resoluciones definitivas), por lo que a su llegada "mejorarán sustancialmente" las cantidades que se exponen a continuación.*

*El Ayuntamiento de Zumaia recibirá 8,2 millones de euros del Fondo Foral; más que el año pasado. Arantxa Gajate afirma, sin embargo, que hay que tener en cuenta que este incremento no cubre el encarecimiento que va a generar la actualización de los gastos corrientes de personal y de los servicios.*

*El déficit de la propuesta presupuestaria es de 7,3 millones de euros. En cualquier caso, el Gobierno municipal no contempla la necesidad de solicitar préstamos. Además, este déficit no se destinará a cubrir la actividad ordinaria del Ayuntamiento, sino a financiar las obras que se ejecutarán en 2023.*

*La puesta en orden de la situación interna del Ayuntamiento ha supuesto un incremento en varios ámbitos: la actualización de las contratas caducadas, por ejemplo, ha supuesto un aumento de los gastos. Por otro lado, siguiendo la línea de los últimos años, y con el objetivo de mejorar los servicios municipales, se seguirá reforzando el personal: además de la contratación de un/a nuevo/a trabajador/a para la brigada, en el área de cultura se contratará un/a nuevo/a administrativo/a para todo el año y otro/a como refuerzo durante la temporada estival. Se atenderá así la carga de trabajo que tiene el Departamento de Cultura.*

*Por último, la concejala destacó que la situación económica del Ayuntamiento de Zumaia es estable. La propuesta presupuestaria es "muy ambiciosa, pero equilibrada desde el punto de vista económico, basada en el principio de prudencia y factible".*

## EAJk ezezkoa, PSE-EEk abstentzioa

EAJren esanetan, aurrekontuak "handiak" dira, baina kopuruaren zati handi bat 2022an egitekoak ziren proiektuei dagokie, "lizitatu gabeko proiektuena" da. Jeltzaleen esanetan, "hauteskunde giroak baldintzatutakoak" dira aurrekontuak, eta "herritarren beharretatik urrun daude; adibidez, etxebizitzarekin lotutako herritarren premia larririk ez da asetzen", azaldu zuen Iker Mardaras zinegotziak.

Bestelako desadostasun batzuk ere aipatu zituzten osoko bilkuran. Udal gobernuak kiroldegiko pista berritzeko proposamena egitea eta iaz proposamen hori bera ukatzea "ulergaitza" da, EAJren ustez. Bestalde, Erkibe berrantolatzeko proposamena "berri ona" dela uste badute ere, "neurrigabea" iruditzen zaie eraikin hartan Azpeitiko Elikagunearen antzeko proiektu bat jartzea. Azken urteotan egin duten moduan, "EH Bilduren gastu publikoaren politika" kritikatu zuten, eta "zerbitzuen bikoiztasunak" daudela nabarmendu: "Berdintasun teknikariarena eta Emakumeon* Etxeko dinamizatzailearena", eta "UKUEren bitartez bideratu beharko litzatekeen enpresa garapena ZKOOP tokiko proiektuaren bidez kudeatzea". Azkenik, udal gobernuak "alde bakarrez" aritzeko joera duela kritikatu zuten jeltzaleek.

PSE-EEk, berriz, 2023rako aurrekontuei abstentzioa eman die. Arritxu Marañonen hitzetan, "zalantzazkoa" da abstentzio hori. Izan ere, azaldu zuenez, "aurrekontu potoloa" bada ere, "gauzatze maila baxua izan da azken urtean". Azkenik, iaz adierazi zuen bezala, publifikazioaren ildotik EH Bildu egiten ari den bidearekiko aurkakotasuna adierazi zuen.

Iñaki Ostolaza alkateak gauzatze mailaren inguruan jasotako kritikei erantzun zien. Komentuko obra eta eraginkortasun energetikoari lotutako proiektua 2023an zehar gauzatuko direla azpimarratu zuen, eta horrek gauzatze mailan "eragin nabarmena" izango duela esan. Kiroldegiari dagokionez, "proiektua martxan" egon dela esan zuen, baina epeek baldintzatu dutela. Alkatearen hitzetan, 2023an zehar jasoko dira "azken urteotan egindako lanaren fruituak; etxebizitzaren arloan, esaterako".



Azkenik, azpikontratazioari eta publifikazioari buruz jasotako kritikak direla-eta, "eredu talka nabarmena" dagoela adierazi zuen, eta "udal zerbitzuak udal langileek eman ditzaten lanean" jarraituko dutela esan.

***Rechazo del PNV, abstención del PSE-EE.*** *El PNV ha calificado de "abultados" los presupuestos, pero ha considerado que buena parte de la cantidad corresponde a proyectos que se iban a llevar a cabo en 2022 y que no se han licitado. Los jeltzales consideran que los presupuestos están "condicionados por el clima electoral" y "alejados de las necesidades de la ciudadanía; por ejemplo, no satisfacen las necesidades urgentes relacionadas con la vivienda", explicó el concejal Iker Mardaras.*

*No fueron las únicas discrepancias comentadas en el pleno. Para el PNV es "incomprensible" que el Gobierno municipal plantee ahora la renovación de la pista del polideportivo y que el pasado año negara esa misma propuesta. Por otro lado, aunque la propuesta de reordenación de Erkibe es una "buena noticia", consideran "desproporcionado" implantar allí un proyecto similar al de Elikagunea de Azpeitia. Al igual que en los últimos años, criticaron la "política de gasto público de EH Bildu" y destacaron la existencia de "duplicidades de servicios", como la de la técnica de Igualdad y la de la dinamizadora de la Casa de las Mujeres*, así como la canalización del desarrollo empresarial a través del proyecto local ZKOOP, mientras existe la Mancomunidad. Finalmente, el grupo jeltzale criticó la tendencia del Gobierno municipal a actuar de forma "unilateral".*

*El PSE-EE, por su parte, ha dado su abstención a los presupuestos para 2023. Arritxu Marañón califica de «dudosa» esa abstención. Y es que, aunque se trata de un "presupuesto gordo", "el grado de ejecución ha sido bajo en el último año". Finalmente, como ya señaló el año pasado, manifestó su oposición a la vía que está llevando a cabo EH Bildu en el camino de la publificación.*

*El alcalde Iñaki Ostolaza respondió a las críticas recibidas sobre el grado de ejecución. Subrayó que la obra del Convento y el proyecto de eficiencia energética se ejecutarán a lo largo del año 2023, lo que tendrá un impacto significativo en el grado de ejecución. En cuanto al polideportivo, señaló que el proyecto ha estado en marcha, pero condicionado por los plazos. En palabras del alcalde, a lo largo de 2023 se recogerán "los frutos del trabajo realizado en los últimos años, por ejemplo en materia de vivienda".*

*Por último, ante las críticas recibidas en torno a la subcontratación y la publificación, señaló que existe "un claro choque de modelos" y aseguró que seguirán trabajando para que los servicios municipales sean prestados por personal municipal.* ●

# Haurrek marraztutako parkea egingo da Mariantonen

2022an zehar, aisialdiaren inguruko diagnostikoa egiten aritu dira Haurren Kontseiluko kideak, eta, besteak beste, Mariantongo parke berriaren ezaugarriak zehaztu dituzte. Eremu guztia berrituko da, eta, beste zenbait elementu berriren artean, 250 metro koadroko estalpe bat izango du gune berriak.

Zumaiako Udalak 2022ko aurrekontuetan txertatu zuen Mariantongo parkea berritu eta estalpea egiteko beharrezko partida. Baina, Haurren Kontseilua eratuta zegoenez, udalak egokitzat jo zuen parkea diseinatzeko lanketa haurrekin batera egitea. Horregatik, parkea eraberritzeko lanak 2023ra atzeratzea erabaki zen.

Haurrek dagoeneko identifikatuta zuten Zumaian parke estaliak behar zirela, eta udalak Mariantongo parkea eraberritzeko borondatea agertu ondoren, Haurren Kontseiluko partaideek erronkari heldu zioten joan den martxoan.

Hala, marrazkiak eta beste zenbait herritako ereduak oinarri hartuta, parke berria irudikatu zuten, elkarlanean. Gainera, jolas eta gune konkretuak zehaztu zituzten: jolas naturaletarako lekua, txikienentzako gunea, egurrezko itsasontzia, tirolina, egoteko leku lasaiak eta aterpea izan ziren haietako batzuk.

**Marrazkiak eta beste herrietako ereduak oinarri hartuta irudikatu zuten haurrek parke berria.**

Horren ondoren, haurren irizpide eta diseinuak kontuan hartuta, udalak KimuBat enpresari esleitu zion proiektuaren idazketa.

Jolas eremuak eta egonlekuak izango ditu parke berriak, baita estalpe bat ere. Horrekin batera, eremu guztian zuhaitz berriak landatu eta lorategi berriak egingo dira. Ondo bidean, 2023an hasiko dira parke estalia eraikitzeko lanak.

---

*El Ayuntamiento de Zumaia incluyó en los presupuestos de 2022 la partida para la reforma del parque de Marianton y la construcción de una cubierta. Pero teniendo en cuenta que el Consejo de la Infancia ya estaba en marcha, el Ayuntamiento consideró oportuno que la elaboración del diseño del parque se realizara conjuntamente con los y las niñas. Por ello, se decidió posponer las obras de reforma del parque a 2023.*

*Los y las niñas ya habían identificado la necesidad de parques cubiertos en Zumaia, y una vez que el Ayuntamiento mostró su voluntad de reformar el parque de Marianton, los y las participantes del Consejo de la Infancia abordaron el reto, el pasado mes de marzo.*

*Diseñaron el nuevo parque trabajando en cooperación, basándose en dibujos y modelos de otras localidades. Además, definieron juegos y zonas concretas que desearían que tuviera el parque: espacio para juegos naturales, zona para los más pequeños, barco de madera, tirolina, lugares tranquilos para estar y un lugar cubierto fueron algunos de ellos.*

*Después, teniendo en cuenta los criterios y diseños de los y las niñas, el Ayuntamiento adjudicó la redacción del proyecto a la empresa KimuBat.*

*El nuevo parque contará con áreas recreativas y zonas de estancia, y también de un espacio cubierto. Además, se plantarán nuevos árboles en toda la zona y se crearán nuevos jardines. Según las previsiones, las obras de construcción del nuevo parque comenzarán a lo largo del 2023.*

# Marianton parkearen antolaketa orokorra

## JOLAS EREMUAK

- **J1** **Jolas naturalen eremua + soka + tirolina**
  Juegos naturales + cuerda + tirolina
- **J2** **Txikientzako jolas eremua**
  Zona de juegos infantiles
- **J3** **Kirol eremua**
  Zona deportiva
- **J4** **Hondar eta ur gunea + itsasontzia**
  Arenero y zona de agua + barco

## EGONLEKUAK

- **E1** **Parke estalia**
  Parque cubierto
- **E2** **Basoko egonlekua**
  Zona de estancia en el bosque
- **E3** **Piknik mahaiak**
  Mesas picnic
- **E4** **Solariuma**
  Solarium
- **E5** **Belardia**
  Césped

## LANDAKETAK

- **L1** **Landaketa itxia (zuhaixkak)**
  Plantación cerrada (arbustos)
- **L2** **Landaketa baxua**
  Plantación baja
- **L3** **Euri loratehia**
  Jardín de lluvia
- **L4** **Belarra**
  Hierba
- **Gaur egungo zuhaitzak**
  Arbolado actual
- **Zuhaitz berriak**
  Nuevo arbolado



# Marianton parkearen diseinua















**Estalpearen kokapena Haurren Kontseiluarekin landuko da.**

*La ubicación de la cubierta se decidirá junto al Consejo de la Infancia.*

**Marianton parkearen aurreproiektuaren diseinua Zumaiako Haurren Kontseiluko kideek egindako marrazki eta proposamenetan oinarritu da.**

*El diseño del anteproyecto del parque Marianton se ha basado en las propuestas y dibujos realizados por los y las participantes del Consejo de la Infancia de Zumaia.*

# Haurren Kontseilua, alkatearen aholku organoa

Hiru eskoletako hamalau haurrek osatzen dute Zumaiako Haurren Kontseilua. 9 eta 11 urte bitartean dituzte, eta helburua da alkateari proposamenak egiteko eta aholkuak emateko organoa izatea.

Hilabetero elkartzen dira partaideak, eta urtean behin alkatearekin zuzenean biltzen dira. Horrela, Haurren Kontseiluak tokiko kudeaketarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikuspegia ematen dio alkatetzari; pertsona helduei herrian egon daitezkeen arazoei buruzko aholkuak eta proposamenak egiten dizkiete, beraz. 2021eko irailean osatu zen kontseilua.

2021/2022 ikasturtean aisialdiaren gaia jorratu zuten. Lehenengo saioan, "aisialdia" hitza elkarrekin definitu zuten, eta horri buruzko mapa kontzeptual bat sortu. Bigarren saioan, Zumaian aisialdiaren arloan dauden indarguneak identifikatu zituzten: zer dauka Zumaiak edo zer dago Zumaian gustatzen zaiguna? Zer erabiltzen dugu? Eta zergatik gustatzen zaigu? Zer da horretan balioan jartzen duguna?... Hurrengo saioan, berriz, ariketa bera egin zuten, baina begirada ahulguneetan jarrita.

**Aisialdiaren gaia jorratu eta gero, mugikortasuna eta haurren autonomia lantzen ari dira orain.**

Aisialdiaren gaia jorratu eta gero, kontseiluko kideak mugikortasuna eta haurren autonomia lantzen ari dira ikasturte honetan.

2020an Oinherri egitasmoarekin bat egin eta Haurren Hiria sarean sartu zen Zumaia. Udalak "herri hezitzailea" izateko konpromisoa hartu zuen bi lankidetza hitzarmen horiekin. Horrek esan nahi du haurrentzat eta haurrekin sortutako herri bat izatea, haurren kulturaren aitortzatik abiatuta. Edo beste modu batera esanda: haurra etorkizuneko herritar edo etorkizuneko pertsona heldu gisa ikusi beharrean, eskubidedun herritartzat hartzea.

Ikuspuntu horretatik sortutako herri batek herritar guztiontzat dakartza onurak. Izan ere, haurrak nahiz bazterrean dagoen beste edozein kolektibo erdigunean jartzeak berekin dakar gauzak beste modu batera egiten hastea, ohiko praktikak aldatzea. Halaber, herri hezitzaile horrek oinarrian beharko lituzkeen hainbat balio hezitzaile lantzea ere bada helburua: berdintasuna, aniztasuna, parte hartzea, euskara... Haurren Kontseiluaren bidez, besteak beste, umeen partaidetza bultzatuko duten ekimenak martxan jartzea da udalaren asmoa, eta haurrei ahotsa, protagonismoa, erabakitzeko ahalmena eta erantzukizuna ematea.

*El Consejo de la Infancia está formado por catorce niños/as de entre 9 y 11 años de los tres centros educativos de Zumaia y tiene por objetivo ser un órgano que aconseje y haga propuestas al alcalde. El Consejo se reúne una vez al*



*mes, y una vez al año se reúnen directamente con el alcalde. Así, el Consejo de la Infancia ofrece a la alcaldía su visión sobre temas relacionados con la gestión local, asesorando y aportando propuestas a personas adultas sobre los problemas que pueda haber en la localidad. El Consejo se constituyó en septiembre de 2021.*

*En el curso 2021/2022 abordaron el tema del ocio. En la primera sesión definieron conjuntamente la palabra "ocio" y crearon un mapa conceptual. En la segunda sesión identificaron las fortalezas que existen en el campo del ocio en Zumaia: ¿Qué tiene o qué hay de lo que nos gusta en Zumaia? ¿Qué utilizamos? ¿Y por qué nos gusta? ¿Qué es lo que ponemos en valor en ello?... En la siguiente sesión repitieron el ejercicio, pero con la mirada puesta en los puntos débiles de la localidad.*

*Tras terminar con la cuestión del ocio, este curso están trabajando en torno al tema de la movilidad y la autonomía de los y las niñas.*

*Zumaia se unió en 2020 al proyecto Oinherri y a la red Haurren Hiria. Mediante aquellos convenios de colaboración el Ayuntamiento se comprometió a ser "un pueblo educativo". Eso supone tener un pueblo creado para y con los/as niños/as, a partir del reconocimiento de la cultura infantil. En lugar de ver a los y las niñas como futuros/as ciudadanos/as o futuras personas adultas, se les reconoce como ciudadanos/as de pleno derecho.*

*Un pueblo construido desde este punto de vista aporta beneficios para toda la ciudadanía. De hecho, poner a los y las niñas o cualquier otro colectivo situado en los márgenes en el centro conlleva otras prácticas y formas de hacer. Asimismo, se pretende trabajar sobre ciertos valores educativos, que debieran ser la base de ese "pueblo educativo" al que se aspira: igualdad, diversidad, participación, euskera... Con el Consejo de la Infancia el Ayuntamiento pretende, entre otros, poner en marcha iniciativas que favorezcan la participación de los y las niñas, dotándolos/as de voz, protagonismo, poder de decisión y responsabilidad.* •







# Moilaberri eta Algorri eraberritzeko dirulaguntza lortu du Zumaiak

5,2 milioi euroko dirulaguntza lortu du Geoparkeak, eta, dirulaguntza horri esker, Moilaberri eraikina eta Algorri Zentroko proiektu museistikoa berritu ahal izango ditu Zumaiako Udalak. Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak kudeatu ditu dirulaguntzak, Next Generation Europar Batasuneko funtsen baitan.

Turismo Sailak Euskal Kostaldeko Geoparkeari 5,2 milioi euroko dirulaguntza ematea onartu zuen abenduaren erdialdean, zenbait proiektutan inbertitzeko. Next Generation EBko Funtsetatik dator dirua, eta proiektu hauetarako erabiliko da, besteak beste:

- Moilaberri eraikina eraberritzeko, 600.000 euro.
- Moilaberrin harrera eta interpretazio zentro berria egiteko, 200.000 euro.
- Algorri Interpretazio Zentroko proiektu museistikoa garatzeko, 495.000 euro.
- Zumaia, Deba eta Mutrikuko turismo bulego eta interpretazio zentroen digitalizazioa garatzeko, 250.000 euro.

Lortutako dirulaguntza horrek aukera emango die Geoparkea osatzen duten hiru herriei (Deba, Mutriku eta Zumaia), bakoitzak dituen proiektu propioak sostengatzeko ez ezik, baita guztiak ildo eta logika berean kokatzeko ere. Zumaian, 1,35 milioi eurorekin Moilaberrirako aurreikusita dagoen proiektu osoa garatzeko eta Algorri Interpretazio Zentroko proiektu museistikoa eraberritzeko inbertsio guztia berdinduko du.

Aurkeztutako proiektuaren helburua da turismoaren balio katea modernizatzea, eskaintza eta zerbitzu turistiko publikoak hobetuta: turismo bulegoak, interpretazio zentroak, produktu turistikoen konektibitatea eta MICE eskaintza. Plan osoan funtsezkoa da jarduera turistikoak eragiten dituen inpaktuak murriztea, eta hainbat estrategia planteatzen dira mugikortasuna hobetzeko, interpretatutako geoibilbideen sarea zabaltzeko eta enpresen ekoturismo eskaintza handitzeko. Geoparkearen proiektua Debegesa agentziaren bidez aurkeztu zen.

*El Departamento de Turismo aprobó a mediados de diciembre la concesión al Geoparque de la Costa Vasca de una subvención de 5,2 millones de euros provenientes de los Fondos Europeos Next Generation para invertir en varios proyectos, entre los que se encuentran:*

- *600.000 euros para la reforma del edificio Moilaberri.*
- *200.000 euros para el nuevo centro de acogida e interpretación de Moilaberri.*
- *495.000 euros para la reforma del proyecto museístico del Centro de Interpretación Algorri.*
- *250.000 euros para el desarrollo de la digitalización de las oficinas de turismo y los centros de interpretación de Zumaia, Deba y Mutriku.*

*La subvención obtenida permite, además de apoyar los proyectos propios de las tres localidades que conforman el Geoparque (Deba, Mutriku y Zumaia), situar a todas ellas en la misma línea y lógica. En cuanto a Zumaia, con 1,35 millones de euros se cubrirá toda la inversión para desarrollar el proyecto previsto para Moilaberri y reformar el proyecto museístico del Centro de Interpretación Algorri.*

*El proyecto pretende modernizar la cadena de valor del turismo, mejorando la oferta y los servicios turísticos públicos, tales como las oficinas de turismo, los centros de interpretación, la conectividad de productos turísticos y la oferta MICE. En todo el plan es fundamental reducir los impactos que genera la actividad turística, al tiempo que se plantean estrategias para mejorar la movilidad, ampliar la red de georutas interpretadas y aumentar la oferta de ecoturismo de las empresas. El proyecto del Geoparque se presentó a través de Debegesa, la Agencia de Desarrollo del Bajo Deba.*

# Moilaberriko geltokia, Zumaia ezagutzeko lehenengo atea

Moilaberriko geltokian kokatuko da Zumaiako turismo bulego berria. Baina hori baino gehiago hartuko du bere baitan eraikinak. Tren geltoki izandakoa Zumaiako anbulatorio bihurtu zen bere garaian, eta, orain, Zumaian hain leku estrategikoan dagoen eraikin hori herritarrei irekitako gune publiko gisa erabiltzeko eraberritzea da asmoa.

Eraikinaren gizarte onura berreskuratzea da helburuetako bat, eta Zumaia hainbat ikuspegitatik ezagutzeko eta bizitzeko interesa duten guztien topaleku bihurtzea. Horretarako, lurraldearen aberastasun geografiko, natural, kultural eta industrialaren balioa azpimarratuko duen gune bat sortu nahi da Moilaberrin.

Bi espazio nagusi izango ditu eraikinak: *Ongi etorri!* turismo informaziorako eremua (behe solairua), eta *Zumaia ezagutu* erakusketa eremua (lehenengo solairua). Bi horiez gain, bulegoetarako eta erabilera anitzeko beste gune batzuk ere izango ditu eraikinak (bigarren solairuan).

Aurreproiektua osatzeko, ekipamenduan parte hartuko duten erakundeetako ordezkarien ekarpenak jaso dira. Hain justu, eskuz esku aritu dira lanean Zumaiako turismo bulegoko, Algorri Interpretazio Zentroko, Zumaiako Industria ondarearen Informazio Zentroko (ZIIZ) eta Zumaiako Udaleko langile eta ordezkariak.

2023an zehar idatziko dute proiektua, eta gero eraberritzeko lanak etorriko dira. Proiektuak Moilaberri eraikinaren eraberritze integrala eta harrera zein erakusketa gune berrien diseinu eta gauzatzea barne hartuko ditu.

---

*La nueva oficina de turismo de Zumaia se ubicará en la estación de Moilaberri, pero el edificio abarcará mucho más. Moilaberri pasó en su día de ser una estación de tren a convertirse en el ambulatorio de Zumaia, y ahora el propósito es reformarlo para que el edificio, situado en un lugar tan estratégico en Zumaia, pueda ser utilizado como espacio público abierto a la ciudadanía.*

*Uno de los objetivos es recuperar el uso social del edificio y reconvertirlo en un lugar de encuentro para todas aquellas personas interesadas en conocer y vivir Zumaia desde diferentes perspectivas. Para ello, se creará un espacio que ponga en valor la riqueza geográfica, natural, cultural e industrial del territorio.*

*El edificio contará con dos espacios principales: el de información turística,* Ongi etorri! *(planta baja), y el espacio expositivo,* Zumaia ezagutuz *(primera planta). Y albergará también otros espacios polivalentes y los destinados a oficinas (segunda planta).*

*En el proceso de preparación del anteproyecto se han recogido las aportaciones de los representantes de las entidades que participarán en el equipamiento, para lo que han trabajado codo a codo trabajadores/as y representantes de la oficina de turismo, del Centro de Interpretación Algorri, de la asociación ZIIZ y del Ayuntamiento de Zumaia. El proyecto incluye la reforma integral del edificio Moilaberri y el diseño y ejecución de los nuevos espacios de acogida y exposición.*







| 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|
| **Aurreproiektua egin** | **Proiektua idatzi** | **Obraren lizitazioa eta obra** |
| *Elaboración del Anteproyecto* | *Redacción del proyecto* | *Licitación de la obra y obra* |

# Algorri Interpretazio Zentroko museo berria

Geoparkeko flyscharen Algorri Interpretazio Zentroa museo bihurtu nahi du Zumaiako Udalak. Espazio didaktiko, moderno eta berritzaile bat sortu nahi da, bertaratzen direnek gure planetako fenomeno geologiko handienetako baten gakoak hobeto ulertzeko, baita naturagune babestu batean modu egokian ibiliko badira nola jokatu behar duten ulertzeko ere.

Horrenbestez, Algorri eraikinean sortu nahi den espazio berriak zenbait helburuari erantzungo die: ikuspegi zientifiko eta didaktikokoak, helburu museologiko eta museografikoak, eta helburu sozioekonomiko eta kulturalak. Hizkera bizi eta modernoa erabiliz, eta ikus-entzunezko zein bestelako baliabide didaktiko eta teknologikoak nahastuta, ikusleen arreta bereganatzeko gaitasuna izango duen espazio erakargarri bat sortzea da asmoa.

Bisitariek 100 milioi urte baino gehiagoko ibilbidea egingo dute, flyscheko estratifikazioaren erritmoari jarraituz. Ibilbidean aurrera egin ahala, flyscha nola eratuta dagoen, bertan zer izaki bizi izan ziren eta 60 milioi urtean baino gehiagoan planetaren historia nolakoa izan zen erakutsiko da. Bestalde, Zumaiako mugak zehazten dituzten gertakariek gaurkotasun handiko gaiez aritzeko bidea emango dute, hala nola seigarren suntsipenaz eta klima aldaketa antropikoaz. Ibilbidea amaitzeko, egungo bi ekosistema aurkeztuko dira, aipatutako aldaketa horiekiko oso zaurgarriak: Deba eta Zumaia arteko biotopo babestua, eta Urolaren estuarioko ekosistemak.

*El Ayuntamiento de Zumaia quiere convertir en museo el centro de interpretación del flysch del Geoparque, Algorri. Para ello, se pretende crear un espacio didáctico, moderno e innovador, que permita comprender mejor las claves de uno de los grandes fenómenos geológicos del planeta, así como las pautas para tener un uso adecuado de un espacio natural protegido.*

*Se pretende, por tanto, crear un nuevo espacio que responda a diferentes objetivos: visión científica y didáctica, fines museológicos y museográficos, y objetivos socioeconómicos y culturales. Utilizando un lenguaje vivo y moderno, y mezclando audiovisuales y otros recursos didácticos y tecnológicos, se quiere crear un espacio atractivo capaz de captar la atención de los y las espectadoras.*

*Los y las visitantes realizarán un viaje de más de 100 millones de años siguiendo el ritmo de estratificación del flysch. Durante el recorrido se mostrará la formación del flysch, quiénes fueron sus habitantes y cómo ha sido la historia de nuestro planeta durante más de 60 millones de años. Los eventos que definen las fronteras de Zumaia servirán para introducir temas de gran actualidad, tales como la sexta extinción y el cambio climático antrópico. El recorrido finalizará con la presentación de dos ecosistemas actuales, muy sensibles a los cambios mencionados: el biotopo protegido de Deba-Zumaia y los ecosistemas del estuario del Urola.* ●







**2022**

**Museoaren aurreproiektua egin**

*Elaboración del anteproyecto del museo*

**2023**

**Museoaren proiektua idatzi eta eraikina eraberritzeko dirulaguntza eskatu**

*Redacción del proyecto del museo y solicitud de subvención para la reforma del edificio*

**2024-2025**

**Proiektu museografikoa gauzatu**

*Ejecución del proyecto museográfico*

# Larretxo auzuneko irisgarritasuna hobetzen

San Telmoko igogailua martxan dago abuztutik, baina udalak auzunearen irisgarritasuna hobetzeko lanean jarraitzen du. Itzurunbideko igogailua egiteko proposamen berria aurkezteaz gain, San Telmoko igogailua eta plataforma lotuko dituzten arrapalak egiteko aurreikuspenen berri eman zien bizilagunei abenduaren hasieran egindako bileran.

Larretxoko bizilagunekin bilera egin zuen udalak azaroaren amaieran. Bertan, auzunearen irisgarritasunarekin lotuta egin diren lanak eta etorkizunean egiteko aurreikusten direnak azaldu zituzten Iñaki Ostolaza alkateak, Gorka Arregi udal arkitektoak eta Itzurunbideko igogailuaren proiektu lehiaketan irabazle gertatu zen Barru Arkitektura estudioko kide Xabier Barrutietak.

Legealdian zehar auzoan egindakoen berri eman zuten lehenik eta behin. Auzotarrekin egindako bilera irekien prozesuan jasotako ekarpenekin auzunearen irisgarritasun plana idatzi zuten lehenengo. Ondoren, plan horretan zehaztutako neurriak egiten joan dira pixkanaka. Horien barruan daude, hain zuzen, San Telmoko igogailua, auzoko bi espaloi zabaltzea, espaloi berri bat egitea eta Itzurunbideko igogailuaren proiektuari hasiera ematea. Bigarren igogailu horrekin lotutako kontuak izan ziren bilerako azalpen gehienak.

Azkenik, alkateak ez zuen baztertu etorkizunean Ondartxo plaza Larretxo auzunearekin lotzeko igogailu txiki bat egiteko aukera. Edonola ere, azaldu zuenez, irisgarritasun planaren baitan epe luzeagora etor daitekeen neurria litzateke hori.

*El Ayuntamiento celebró a finales de noviembre una reunión con los y las vecinas de Larretxo, en la que explicaron las obras que se han realizado hasta el momento relacionadas con la accesibilidad del barrio y las que se prevén realizar en el futuro. Tomaron la palabra el alcalde Iñaki Ostolaza, el arquitecto municipal Gorka Arregi y Xabier Barrutieta, miembro del estudio Barru Arkitektura, empresa ganadora del concurso de proyectos del ascensor de Itzurunbide.*

*Comenzaron explicando las actuaciones que se han ejecutado en el barrio a lo largo de la legislatura. Como primer paso, tras el proceso de reuniones abiertas, se redactó el plan de accesibilidad del barrio. Posteriormente, se han ido realizando progresivamente las medidas recogidas en este plan. Esto incluye el ascensor de San Telmo, la ampliación de dos aceras del barrio, la creación de una nueva, y el inicio del proyecto del ascensor de Itzurunbide. Las cuestiones relacionadas con este segundo ascensor fueron las que centraron la mayor parte de la reunión.*

*Por último, el alcalde no descartó la posibilidad de instalar en un futuro un pequeño ascensor desde la plaza Ondartxo. Pero, según explicó, esta medida vendría a más largo plazo dentro del plan de accesibilidad.*





## Itzurunbideko igogailua egiteko proposamen berria

Itzurunbideko igogailuaren proiektu lehiaketa deitu zuen udalak, eta herritarrek bozketa bidez eta udal teknikariek puntuazioz erabaki zuten lehiaketaren irabazle *Herensugearen igogailua* izendatzea (Barru Arkitektura estudioak aurkeztutakoa). Hala ere, igogailuaren kokapenari buruzko bizilagunen ekarpenak jaso ostean, proiektua ekarpen horietara moldatzea erabaki zuten. Hala, udalak Barru Arkitekturari eskatu zion igogailuarentzat toki egokiena aurkitzeko, beharrak eta zailtasun teknikoak kontuan hartuta.

Horrenbestez, Itzurunbideko igogailua hasieran uste zena baino beherago egingo da, Itzurunbideko aldaparen eskuinaldean, Spot surf eskola pasatu eta berehala gaur egun eserleku bat dagoen tokian. Xabier Barrutietak azaldu zuenez, proposatu den kokapenak goiko plataformara heltzeko eginda dagoen espaloia aprobetxatzen du, eta horrek erraztu egiten du proiektua. Gainera, etxebizitzetatik urrunago kokatzea ahalbidetzen du, eta, beraz, bizilagunei eragiten dien inpaktu bisuala txikitzea.

Horiek guztiak kontuan izanda, Ostolazak azaldu zuen lanak 2024an egitea dela udalaren asmoa. Proiektuaren kokapena moldatzeak epeak luzatzea ekarri duela ere aipatu zuen.

---

*El Ayuntamiento convocó el concurso de proyectos del ascensor de Itzurunbidea, y por votación de los y las vecinas, y por la puntuación concedida por técnicos, se decidió adjudicar como proyecto ganador el presentado por el estudio Barru Arkitektura, llamado* Herensugearen igogailua *(el ascensor del dragón). Sin embargo, tras recibir las aportaciones de los y las vecinas en relación con la ubicación del ascensor, decidieron adaptar el proyecto. Así, el Ayuntamiento solicitó al estudio de arquitectura que localizara el lugar más adecuado, teniendo en cuenta las necesidades y dificultades técnicas.*





*Por lo tanto, el ascensor de Itzurunbidea se construirá más abajo de lo inicialmente previsto, en el lado derecho de la cuesta de Itzurunbidea, donde en la actualidad hay un asiento, inmediatamente después de la escuela de surf Spot. Según explicó Xabier Barrutieta, en la ubicación propuesta se aprovecha la acera existente para llegar a la plataforma superior, lo que facilita el proyecto, y además permite ubicar el ascensor más lejos de las viviendas, lo que minimiza el impacto visual que genera a los y las vecinas.*

*Así las cosas, según Ostolaza, la intención del Ayuntamiento es que las obras se realicen en 2024. También explicó que la adaptación de la ubicación del proyecto ha supuesto un alargamiento de los plazos.*



## Malda txikiko arrapalak

Itzurunbideko igogailuaz gain, 2024an egitekoak diren beste lan batzuk ere azaldu zituzten bileran. San Telmoko igogailua eta Larretxoko plataforma era irisgarrian elkartzeko, udalaren asmoa da plaza berdea esaten zaion eremuko bi pendizetan (plazaren goialdean eta behealdean) arrapala irisgarri bana egitea. Horrek gurpildun aulkiei eta bestelakoei Ardantzabidetik Larretxoko plataformara era irisgarrian heltzeko modua emango lieke.

Baztertu egin dute plaza berdean beste igogailu txiki bat jartzeko aukera, inguruko etxebizitzetatik hurbilegi gelditituko litzatekeela iritzita.



*Además del ascensor de Itzurunbidea dieron cuenta de otras obras que tienen previsto realizar en 2024. Con el fin de unir el ascensor de San Telmo y la plataforma de Larretxo de forma accesible, el Ayuntamiento tiene previsto realizar sendas rampas accesibles en las dos pendientes de la zona conocida como plaza verde (en parte superior e inferior de la plaza).*

*Se ha descartado la posibilidad de instalar otro pequeño ascensor en la plaza verde, al considerar que quedaría demasiado cerca de las viviendas contiguas.* ●



# 2023 amaieran hasiko dira Torreagako etxebizitzak eraikitzen

250 etxebizitza eraikiko dira: 53 babes ofizialekoak izango dira; beste 52, etxebizitza tasatuak, eta gainerako 145 etxebizitzak libreak izango dira.



Udalbatzak urriko plenoan onartu zuen Torreagako etxebizitzak eraikitzen hasteko behar zen arau subsidiarioaren aldaketa dokumentua. Guztira 250 etxebizitza eraikiko dira. Bost bloketan banatuta, sei solairu eta atikoa izango dituzte guztiek, eta etxabea ere bai. 250 etxebizitza horietatik, honako hau izango da banaketa:

- Babes ofizialekoak: 53 etxebizitza.
- Etxebizitza tasatuak: beste 52 etxebizitza.
- Gainerakoak libreak izango dira: 145 etxebizitza.
- Etxebizitzez gain, 1.500 metro koadroko lokal bat egokituko dute, eta udalaren esku geratuko da.

Epeei dagokienez, ondo bidean, 2023 bukaeran edo 2024 hasieran hasiko dira obrak, eta promozioa 2023ko udaberrian zehar egingo dela aurreikusten dute. Momentu honetan informazio bulegoa noiz ireki ahal izango den hitz egiten ari dira enpresa eraikitzaileekin, eta informazioa eduki bezain laster helaraziko diete zumaiar guztiei.

*El pleno municipal aprobó en el pleno de octubre el documento de modificación de la norma subsidiaria necesaria para poner en marcha la construcción de viviendas en Torreaga. En total se construirán 250 viviendas en el área de Torreaga. Divididos en cinco bloques, todos ellos tendrán seis pisos, ático y bajo. De las 250 viviendas, la distribución será la siguiente:*

- *Viviendas de protección oficial: 53.*
- *Viviendas tasadas: otras 52 viviendas.*
- *El resto serán libres: 145 viviendas.*
- *Además, se habilitará un local de 1.500 metros cuadrados que quedará a disposición del Ayuntamiento.*

*En cuanto a los plazos, las obras comenzarán a finales de 2023 o principios de 2024, y prevén que la promoción se desarrolle a lo largo del otoño de 2023. En estos momentos se está hablando con las empresas constructoras de cuándo se podrá abrir la oficina de información. El Ayuntamiento informará a toda la ciudadanía cuando disponga de más información.*

## Orain artekoak

Torreagako eremuan egin beharreko etxebizitza eta hirigintza antolaketari dagokion prozesua luzea izaten ari da. Hasiera batean Torreagan kokatutako babes ofizialeko etxebizitzak Puntanuetako eremura mugitu zituzten; prozesu hori bertan behera gelditu zen, eta, gerora, 2018an, babes ofizialeko etxebizitzak atzera ere Torreagako eremura eramatea erabaki zuen Zumaiako Udalak.

Proiektua aldatu izanak, arau subsidiarioa aldatu beharra ekarri du, Puntanueta eta Torreaga arteko lotura eteteko. 2020ko uztaileko osoko bilkuran, arau subsidioaren behin-behineko onarpena eman zioten. Onarpen haren ostean, udalaz gaindiko beste administrazio batzuen esku egon diren zenbait prozedura tarteko, orain iritsi da behin betiko onarpena. Behin erabakia hartuta, Torreagako etxebizitzak eraikitzen hasteko moduan egongo dira 2023 amaieran.

---

*El proceso para la construcción de viviendas y realizar la ordenación urbanística de Torreaga está siendo largo. En un primer momento las VPO ubicadas en Torreaga fueron desplazadas al ámbito de Puntanueta, pero el proceso se paralizó, y posteriormente, en 2018, el Ayuntamiento de Zumaia decidió trasladar las VPO al lugar de inicio, el área de Torreaga.*

*La modificación del proyecto ha supuesto la modificación de la norma subsidiaria, para cortar la relación entre Puntanueta y Torreaga. En el pleno de julio de 2020 se aprobó provisionalmente la norma subsidiaria. Tras aquella aprobación, por motivos ajenos al Ayuntamiento relacionados con procedimientos que correspondían a otras administraciones supramunicipales, llega ahora la aprobación definitiva. Con esta decisión ya estarán en condiciones de comenzar con la construcción de viviendas en Torreaga a finales de 2023.* ●



# Zumaiak badu LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetzeko ekintza plana

Sei erronka eta 45 neurri zehatz definitu dituzte planean. Lehenengo ekintza 2023 hasieran egingo da: LGTBI+ pertsonen bizipenen eta "armairuaren" inguruko sentsibilizazio kanpaina.

Azken urteetan LGTBI+ kolektiboaren aldarrikapenak kalean ikusten diren arren, gaur-gaurkoz oraindik ez da asmatu identifikatutako behar horiek neurri politikoetara eramaten.

Hausnarketa eta hutsune horri tiraka hasi zen lanketa hau 2020an. Herriko kolektibo eta norbanakoak elkarrizketatu ondoren, Zumaiako LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetu ahal izateko beharrak identifikatu, eta neurri eta politika konkretuen zerrenda eta plana osatu dira.

---

*Aunque en los últimos años se ven también en las calles las reivindicaciones del colectivo LGTBI+, hoy por hoy todavía no se ha acertado en trasladar esas necesidades a medidas políticas.*

*Este proceso surgió a partir de esa reflexión, en el año 2020. Tras entrevistar a colectivos y personas del municipio, se han identificado necesidades y elaborado un listado de medidas y políticas concretas para mejorar las condiciones de vida de las personas LGTBI+ en Zumaia.*



# Beharrak eta erronkak

## IKUSGARRITASUNA, SENTSIBILIZAZIOA ETA AITORTZA

LGTBI+ pertsonen errealitateak ikusarazteak alternatibak ematen dizkio eredu heterosexual hegemonikoari, pertsona bakoitza era askeagoan bizi dadin. Bestalde, funtsezkoa da LGTBI+ pertsonen bizitzak, borrokak eta bideak onartzea eta aitortzea. Horretarako, sentsibilizazio lana ezinbestekoa da, ikusgarritasuna areagotzeko eta errekonozimendu osoa lortzeko.

***Visibilidad, sensibilización y reconocimiento.*** *Visibilizar las realidades de las personas LGTBI+ aporta alternativas al modelo heterosexual hegemónico, para que cada persona viva de forma más libre. Por otro lado, es fundamental la aceptación y el reconocimiento de las vidas, luchas y caminos de las personas LGTBI+. Para ello, el trabajo de sensibilización es imprescindible para aumentar la visibilidad y lograr un reconocimiento integral.*

## ESKURAGARRITASUNA

Zumaiako profesional eta gizarte taldeak LGTBI+ pertsonen bizitza hobetzeko politikak ezartzen laguntzeko prest badaude ere, askotan ez dakite nola, edo ez dute horretarako nahikoa baliabide. Informazioa eta materiala eskuragarri izatea funtsezkoa da, ahalik eta zerbitzu inklusiboenak eskaintzeko.

***Disponibilidad.*** *Aunque los profesionales y grupos sociales de Zumaia están dispuestos a ayudar a implementar políticas para mejorar la vida de las personas LGTBI+, muchas veces no saben cómo, o no tienen recursos suficientes. Es fundamental disponer de la información y el material necesarios para ofrecer servicios lo más inclusivos posibles.*

## SOZIALIZAZIOA ETA PARTE HARTZE KOMUNITARIOA

Bizi dugun mundu eta gizarte honetan norbanakoak behar-beharrezkoa du inguruan komunitate bat izatea eta komunitate horretako kide sentitzea. Kidetasun taldeen bidez zaintza, kezka eta interes komunak garatzeko eta partekatzeko komunitate foroetan eta foro politikoetan parte hartzeko aukerak sortzea beharrezkoa da.

***Socialización y participación comunitaria.*** *Tener una comunidad y ser miembro de ella es imprescindible en el mundo y en la sociedad en la que vivimos. Es necesario generar oportunidades de participación en foros comunitarios y políticos para desarrollar y compartir cuidados, inquietudes e intereses comunes a través de grupos de ayuda o compañerismo.*

## INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

LGTBI+ pertsonek indarkeria askori egin behar izaten diete aurre: askok eraso fisikoekin dute zerikusia, baina baita beste eraso sotilago batzuekin ere, haien genero adierazpena, sexualitatea edo identitatea bizitzeko moduarengatik. Indarkeriarik gabeko bizitzak lortzea eta halako egoerak saihestea da udalaren helburu nagusietako bat.

***Vidas sin violencia.*** *Las personas LGTBI+ se enfrentan a muchas violencias: muchas tienen que ver con agresiones físicas, pero también con otras más sutiles relacionadas con su forma de vivir la propia sexualidad, identidad o expresión de género. Conseguir vidas libres de violencia y evitar este tipo de situaciones es uno de los objetivos principales del Ayuntamiento.*

## AKONPAINAMENDUA, ZAINTZA ETA BABESA

LGTBI+ pertsonen prozesuak eta proiektuak bultzatu eta aintzatetsiko dituen esparru instituzional bat izatea ezinbestekoa da, genero trantsizio kasuetan zailtasun bereziak ekar ditzaketen bizi uneetan bereziki.

***Acompañamiento, cuidados y protección.*** *Es imprescindible contar con un marco institucional que impulse y reconozca los procesos y proyectos de las personas LGTBI+, especialmente en los momentos vitales que pueden presentar dificultades especiales en casos de transición de género.*

## ZEHARKAKOTASUNA

Euskararekin edo berdintasunarekin gertatzen den bezala, LGTBI+ kolektiboaren beharrak ere zeharka kontuan hartu behar dira martxan jartzen diren proiektu eta politika guztietan. Are gehiago, zeharkakotasuna funtsezkoa da LGTBI+ politikek beren helburuak lor ditzaten.

***Transversalidad.*** *Al igual que con el euskera o la igualdad, también las necesidades del colectivo LGTBI+ han de ser tenidas en cuenta en todos los proyectos y políticas que se pongan en marcha. Es más, la transversalidad es fundamental para que las políticas LGTBI+ alcancen sus objetivos.*

# 45 neurri zehatz

**Identifikatutako beharrei erantzunak emateko, zortzi eremutan sailkatu dira neurriak.**

*Para dar respuesta a las necesidades identificadas, las medidas se han clasificado en ocho ámbitos.*

---

01

## PROTOKOLOAK ETA KANPAINAK

Adib.: LGTBI+ pertsonek jasandako hainbat indarkeria esperientziatatik abiatuta, komunikazio kanpaina bat sortzea.

***Protocolos y campañas.*** *Ej.: Crear una campaña de comunicación a partir de diferentes experiencias de violencia sufridas por las personas LGTBI+.*

---

02

## ESPAZIO PUBLIKOA

Adib.: Herriko kale izendegian erreferentziazko LGTBI+ pertsonen izenak txertatzea.

***Espacio público.*** *Ej.: Incluir en el callejero del municipio nombres de personas LGTBI+ de referencia.*

---

03

## MEMORIA

Adib.: Zumaiako LGTBI+ memoria jasotzea.

***Memoria.*** *Ej.: Recoger la memoria LGTBI+ de Zumaia.*

---

04

## SARETZEA ETA KOMUNITATEA

Adib.: LGTBI+ pertsonentzako sozializazio espazio eta aukerak sortzea eta ahalbidetzea.

***Red y comunidad.*** *Ej.: Crear y posibilitar espacios y oportunidades de socialización para las personas LGTBI+.*

---

05

## KULTURA, KIROLA ETA AISIALDIA

Adib.: LGTBI+ kultur eskaintza bilduko duen euskarri gida sortzea.

***Cultura, deporte y ocio.*** *Ej.: Crear una guía de soporte que recoja la oferta cultural LGTBI+.*

---

06

## HEZKUNTZA ETA FORMAKUNTZA

Adib.: Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko profesionalek eraso LGTBIfobikoak identifikatzeko eta horrelakoen aurrean esku hartzeko gida sortzea.

***Educación y formación.*** *Ej.: Crear una guía para profesionales de la educación formal y no formal para la identificación e intervención ante agresiones LGTBIfóbicas.*

---

07

## ARRETA ETA ZERBITZUAK

Adib.: LGTBI+ pertsonentzako aholkularitza, babes, zaintza eta arreta psikologikorako espazio bat sortzea.

***Atención y servicios.*** *Ej.: Crear un espacio de asesoramiento, protección, cuidado y atención psicológica para las personas LGTBI+.*

---

08

## ADMINISTRAZIOA ETA BARNE MAILA

Adib.: Indarkeria LGTBIfobikoa lantzeko protokoloa sortzea, instituzioaren eta herriko eragile eta mugimenduen arteko interlokuzioa eta elkarlana uztartuko dituena.

***Nivel administrativo e interno.*** *Ej.: Crear un protocolo para trabajar la violencia LGTBIfóbica que integre la interlocución y la colaboración entre la institución y los agentes y movimientos locales.* ●

# Memoria historikoa eraikitzen



**Errepresio frankista jasan zuten zumaiarretako bat bazara, edo horietako norbaiten berri baduzu, idatzi edo deitu:**

*Si sufriste la represión franquista, o conoces alguien que lo padeció, escribe o llama:*

**memoria@aranzadi.eus**

**943 46 61 42**

2019an argitaratu zuen Zumaiako Udalak Gerra Zibilean eta lehen frankismoan (1936-1945) izandako errepresioari eta giza eskubideen urraketei buruzko ikerketa lana. Gerra Zibila nahiz gerraosteko errepresioa, atzeguardian emakumeen aurka eragindako errepresioa eta kanporaketak, erbestea, fusilamenduak eta desagerpenak, gerra kontseiluak eta epaiketak, ihes egindakoak eta desagertutakoak, errepresio ekonomikoa, garbiketak, atxilotuen esparruak eta errepresio lausoa izan zituzten aztergai lan hartan, eta Aranzadik liburu batean bildu zuen informazio guztia.

Orain, 1936tik 1959ra bitarteko aldi hura areago ikertzen eta orduko memoria historikoa osatzen jarraitu nahi du udalak, fundazio beraren eskutik. 2019an argitaratutako ikerketatik eta argitalpenetik abiatuta, identifikatuta dauden 1936-1945 bitarteko biktima guztiak sailkatuko dira, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lehen frankismoko garairako ezarriak dituzten giza eskubideen urraketa mailaren arabera. Eta, bestalde, 1945-1959 bitartean errepresio frankistaren biktima izan ziren zumaiarrak identifikatzeko lanari ekingo zaio.

Berrikuspen eta ikerketa lan horiek egiteko, herritarren informazioa eta testigantzak beharko ditu udalak.

*En 2019 el Ayuntamiento de Zumaia publicó un estudio sobre la represión y violación de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el primer franquismo (1936-1945): la represión de la posguerra, la represión contra las mujeres y las expulsiones, el exilio, los fusilamientos y desapariciones, los consejos de guerra y los juicios, los fugados y desaparecidos, la represión económica, las depuraciones, los campos de prisioneros y la represión difusa. Información exhaustiva que Aranzadi recopiló en un libro.*

*Ahora, el Ayuntamiento quiere ampliar la investigación sobre aquel mismo periodo de entre 1936 y 1959 y completar la memoria histórica, de la mano de la misma fundación. A partir del estudio publicado en 2019, se clasificarán todas las personas que fueron víctimas entre 1936 y 1945 que ya han sido identificadas, en función del nivel de vulneración de derechos humanos establecido por el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa para el primer franquismo. Y junto a ello, se intentará identificar a todos y todas las zumaiarras que fueron víctimas de la represión franquista entre 1945 y 1959.* ●



## IV. Berdintasun Plana indarrean

Zumaiak ibilbide luzea du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako gaiak udalean lantzen. 2011n izan zuen berdintasunerako lehen plangintza, eta, orain, IV. Plana jarriko du abian. Oraingoan, baina, salto kualitatibo bat egin nahi du, hurrengo urteetarako estrategia eta bide orria ezarrita: IV. Planak, ekintza konkretuak zehazteaz gain, lanerako marko oso bati egiten dio erreferentzia.

***En vigor el IV Plan de Igualdad.*** *Zumaia cuenta con una larga trayectoria trabajando temas para la igualdad entre mujeres y hombres. En 2011 tuvo su primera planificación para la igualdad, y en la actualidad pondrá en marcha el IV Plan, con el que además quiere dar un salto cualitativo, estableciendo la estrategia y la hoja de ruta para los próximos años.*

---




## Zaintzen duen Zumaia irudikatzen

Herriko eragile feministek zaintzaren gaiari heltzeko dinamika abiatu zuten joan den maiatzean, Foru Aldundiaren eta udalaren babesarekin. Zenbait kolektibo elkarrizketatu ostean, azaroaren 22an egun osoko jardunaldia egin zuten, "bide orri bat marrazten hasteko". Urte berriarekin batera jarraituko dute lanketa.

***Dibujando un pueblo que cuida.*** *Los agentes sociales feministas del Zumaia iniciaron el pasado mes de mayo una dinámica para tratar el tema de los cuidados, con el apoyo de la Diputación y del Ayuntamiento. Tras entrevistar a diferentes colectivos, el 22 de noviembre se organizaron unas jornadas de mañana y tarde, para "comenzar a dibujar una hoja de ruta". El proceso continuará con el nuevo año.*

---




## Indarkeria matxistako 11 kasu 2022an

11 kasu horietatik batean talde bat izan da erasoa jasan duena. Gizarte Zerbitzuek 9 kasu artatu dituzte; horietaz gain, aurreko urteetako 8 kasuren jarraipena egin da. Indarkeria jasan dutenek 9 eta 74 urte bitartean dituzte. Udalak indarkeria matxistaren egiturazko izaera azpimarratu nahi du, eta horri aurre egiteko konpromiso politiko irmoa agertu.

***11 casos de violencia machista en el 2022.*** *En uno de estos 11 casos ha sido un grupo el que ha sufrido la agresión. Los Servicios Sociales han atendido 9 casos; además, se ha realizado un seguimiento de 8 casos de años anteriores. Las mujeres que han sufrido violencia tienen entre 9 y 74 años. El Ayuntamiento quiere subrayar el carácter estructural de la violencia machista y mostrar su firme compromiso político para hacer frente a la misma.*



## Maddi Aiestaranek irabazi du Julene Azpeitia ipuin lehiaketa

Maddi Aiestaran, Gotzon Plaza eta Angel Gallo izan dira 35. Julene Azpeitia ipuin lehiaketako saridunak. Azken lehiaketa honetara 54 lan aurkeztu dira, aurrekora baino gehiago, horietatik hiru zumaiarrek idatziak. Lehiaketaren sorreratik hona saritutako ipuin guztiak modu digitalean eskuragarri daude zumaia.eus webgunean.

***Maddi Aiestaran, ganadora del concurso Julene Azpeitia.*** *Los y las premiadas en la 35ª edición han sido Maddi Aiestaran, Gotzon Plaza y Angel Gallo. A esta última edición se han presentado 54 trabajos, más que al anterior, tres de ellos escritos por zumaiarras. Los cuentos premiados desde la creación del concurso están disponibles digitalmente en zumaia.eus.*

---



## Sormen bekak, Astigarraga eta Curielentzat

Ibane Astigarragak ondare kulturala haurrekin lantzeko ipuin kontaketa eta ariketa sorta bat prestatuko ditu Julio Beobideren obran ardaztuta eta Irene Irureta ilustratzailearen lanez lagunduta. Esti Curielek, berriz, itsasoarekin harremana izan duten emakumeen bizipen eta esperientziak biltzeko *Kareletik* ikerketa egingo du.

***Las becas de creación, para Astigarraga y Curiel.*** *Ibane Astigarraga preparará una sesión de cuentacuentos y una serie de ejercicios para trabajar el patrimonio cultural con los y las niñas, en torno a la obra de Julio Beobide y acompañada por el trabajo de la ilustradora Irene Irureta. Esti Curiel, por su parte, realizará un estudio sobre las vivencias y experiencias de las mujeres que han tenido relación con el mar.*

---



## zumaia.eus webgunea, orain errazago

Zumaiako Udalaren webgunea da zumaia.eus, eta bertan aurkitu daitezke udal jarduerari lotutako albisteak, agenda, informazio teknikoa zein bestelakoak. Orain, antolaketa berrituta, udaleko sailei, ekipamenduei eta zerbitzuei buruzko informazioa argiago dago jasota.

***La web zumaia.eus, más clara.*** *zumaia.eus es la página web del Ayuntamiento de Zumaia, en la que se pueden encontrar noticias, la agenda, información técnica y otras cuestiones relacionadas con la actividad municipal. Ahora, con la nueva organización de la web, se ha recogido de forma más clara toda la información sobre los departamentos, equipamientos y servicios municipales.*



## Gernikako arbolaren kimu berria

1937an bonbardatu zuten Gernika hegazkin alemanek, eta 1987an Gernikako parkeari izen hori ematea erabaki zuen udalak. Gerora, Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zen bertan, baina kokapenagatik ezin izan du bizirik iraun. Horregatik, parkeko beste leku batean landatu da kimu berria, eta plaka bat jarri zaio alboan, "Euskal Herriaren bake eta askatasun gogoaren" ikurra dela oroitzeko.

***Nuevo retoño del Árbol de Gernika.*** *Gernika fue bombardeada en 1937 por aviones alemanes, y en 1987 el Ayuntamiento decidió darle tal nombre al parque de Gernika. Posteriormente se plantó en él un retoño del Árbol de Gernika, que murió, a causa de su ubicación. Ahora se ha plantado un nuevo retoño en una nueva ubicación, con una placa para recordar que es el símbolo del "espíritu de paz y libertad de Euskal Herria".*



## Herrira iritsi berriei ongietorria

Azaroaren amaieran Zumaiara etorri berriei zuzendutako Harrera Gida aurkeztu zuen udalak, eta horiek helarazteaz gain, udaletxean ongietorria egiteko ekitaldia egin zuten abenduan. Udal zerbitzuak, herria bera eta elkar ezagutzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Harrera Gida bost hizkuntzatan dago eskuragarri, zumaia.eus webgunean eta udaletxeko HAZen.

***Bienvenida a los y las nuevas zumaiarras.*** *A finales de noviembre el Ayuntamiento presentó la Guía de Acogida dirigida a las personas recién llegadas a Zumaia. En diciembre, se celebró un acto de bienvenida en el Ayuntamiento. Los y las asistentes tuvieron la oportunidad de conocer los servicios municipales, la propia localidad y conocerse entre ellos/as. La Guía de Acogida está disponible en zumaia.eus y en el ayuntamiento.*




## Zumaiako Adierazpena, flyscharen oinetan

IUGS elkarteak Zumaian egin zituen bere 60. urteurreneko topaketak. Astebetez, mundu mailako ondare geologikoaren lehen 100 interesguneen inguruan aritu ziren, eta horietakotzat hartu zuten Geoparkeko flyscha ere. Hain zuzen, Itzurunen sinatu eta irakurri zuten Zumaiako Adierazpena, eta Lurraren zientziek XXI. mendeko ingurumen erronkei aurre egiteko duten garrantzia nabarmendu zuten bertan.

***La Declaración de Zumaia, a los pies del flysch.*** *La asociación IUGS celebró en Zumaia las jornadas para celebrar su 60 aniversario. Durante una semana trataron sobre los 100 primeros lugares de patrimonio geológico. Entre ellos se incluyó el flysch del Geoparque, donde se aprobó la Declaración de Zumaia, en la que destacaron la importancia de las ciencias de la Tierra para afrontar los retos medioambientales del siglo XXI.*



## Pantailen erabileraz

Guraso Eskolen barruan, haur txikien eta pantailen arteko harremanaren inguruko formakuntza jaso dute herriko gurasoek. Gurasoak heziketa prozesuan inplikatzea, horretarako bidelaguntza eskaintzea eta gurasoen arteko sare berriak sortzea dira Guraso Eskolaren helburuak. Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Hezkuntza eta Gazteria sailek elkarlanean antolatutako programa da, eta 0 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteen gurasoei zuzenduta dago.

***Sobre el uso de las pantallas.*** *Padres y madres de la localidad han recibido formación en torno a la relación entre los y las niñas pequeñas y las pantallas. Los objetivos de la Escuela de Padres y Madres son implicar a las familias en el proceso educativo, ofrecerles ayuda para ello y crear nuevas redes.*




## Merkataritzako Plan Estrategikoa osatzen

Lehen fasean, merkataritzaren arloko eskaintzaren, eskariaren eta kokapen espazialaren diagnosia egiten ari da udala. Merkatariek galdetegi bat erantzun ondoren, diagnosiaren garapenean identifikatutako puntu garrantzitsuenen kontrastea egiteko talde fokaleko bilera bat egin dute abenduan.

***Elaborando el Plan Estratégico de Comercio.*** *En una primera fase, el Ayuntamiento está realizando un diagnóstico de la oferta, demanda y ubicación espacial en el ámbito comercial. Tras la respuesta de los comerciantes a un cuestionario, se ha celebrado en diciembre una reunión del grupo focal para contrastar los puntos más importantes identificados en el desarrollo del diagnóstico.*



## Onartu da ‘terrazen ordenantza’ berria

Ordenantzaren xedea da lurzoru publiko zein pribatuen erabilera arautzea, ostalaritzako eta merkataritzako jarduerak garatzeari lotuta. Azken urteotako kexak kontuan hartuta, gaia berrartu du udalak, eta herritarrekin zein inplikatutako sektoreekin hainbat bilera egin ondoren, ordenantza berria egin du.

***Aprobada la nueva ‘ordenanza de terrazas’.*** *La Ordenanza tiene por objeto regular el uso de suelos, tanto públicos como privados, vinculados al desarrollo de actividades hosteleras y comerciales. Teniendo en cuenta las quejas de los últimos años, el Ayuntamiento ha retomado el tema y, tras varias reuniones con la ciudadanía y los sectores implicados, ha elaborado una nueva ordenanza.*

# Komentua eraberritzeko lanak martxan

5.085.000 euro

Joan den abenduan hasi ziren Zumaiako San Jose Komentua eraberritzeko lanak. Altzari eta objektu baliotsuak atera eta behar bezala gorde ondoren, San Jose kalearen eta lorategiaren arteko horma botatzea izan zen lehen pausoa. Handik sartu zuten obra osoan beharko den garabia. Hurrengo hilabeteetan, pausoz pauso, eraikin osoa eraberrituko da, eta, ondo bidean, 2024ko ekainean bukatuko dituzte lanak.

Jakina denez, Musika eta Dantza Eskola hartuko du Komentuak, eta dantzarako, antzerkirako eta bestelako jarduera artistikoetarako lekua izango da. Elkarteentzako bilgune izateaz gain, sinergia berriak sortu eta sormenerako haztegia izatea nahi luke udalak.

Komentua biziz beteko duen proiektua ez dago geldirik, ordea. Kultur Topagunearen bueltan egongo diren bestelako espazio eta proiektuak lantzen ari da udala: lorategiko proiektua eta kantina, Komentuko bizitzaren inguruko Interpretazio Zentroa, aterpetxe berria eta kudeaketa eredua.

*Las obras de reforma del Convento de San José comenzaron el pasado mes de diciembre. Una vez extraídos y guardados debidamente los muebles y objetos de valor, el primer paso fue derribar la pared que une la calle San José con el jardín, por donde introdujeron la grúa que se utilizará durante toda la obra. En los próximos meses, paso a paso, se procederá a la reforma de todo el edificio, que finalizará en junio de 2024.*

*Como es sabido, el Convento acogerá la Escuela de Música y Danza, y será un espacio para la danza, el teatro y otras expresiones artísticas. El Ayuntamiento espera que se creen nuevas sinergias y se convierta en un vivero para la creatividad.*

*De todas maneras, aunque aún falte tiempo para que el Convento habra sus puertas, el proyecto que lo llenará de vida no está en stand-by: el Ayuntamiento está trabajando en otros espacios y proyectos que acompañarán al proyecto cultural, tales como el proyecto del jardín y la cantina, el Centro de Interpretación sobre el patrimonio y la vida en el convento, el nuevo albergue y modelo de gestión.*



## Finantziazioa eta dirulaguntzak
Financiación y subvenciones




OHARRA: Zumaiako Udalak Komentuko proiektua garatzeko dirulaguntza gehiago eskatuak ditu eta ebazpenen zain dago.

*NOTA: El Ayuntamiento de Zumaia ha solicitado otras subvenciones y está a la espera de las resoluciones.*

2022 azaroa
**Komentua hustu eta materiala behar bezala gorde**
*Vaciar el convento y guardar el material debidamente*

2022 abendua
**San Jose kalearen eta lorategiaren arteko horma bota eta garabia sartu**
*Derribar la pared entre la calle San José y el jardín y meter la grúa*

2023 urtarrila
**Desmuntaketa eta hondeaketa lanak**
*Trabajos de desmontaje y excavación*

2023 otsaila - ekaina
**Egiturazko elementuak indartu eta berritu**
*Refuerzo y renovación de elementos estructurales*



## Kultur topagunea

Komentuko lehen solairuan Zumaiako Musika eta Dantza Eskolako klaseetarako gelak eta bulegoak egongo dira. Bigarren solairuan, herriko elkarteen saio eta entseguetarako lekua.

***Punto de encuentro cultural.** La primera planta del convento estará ocupada por aulas y oficinas de la Musika Eskola. En la segunda planta habrá espacio para las sesiones y ensayos de las asociaciones locales.*

## Auditoriuma

Auditorium berriarekin kultur eskaintzak kalitatezko areto eta oholtza berri bat izango du Zumaian, herriko zein kanpoko ikuskizunetarako.

***Auditorio.** Con el nuevo auditorio la oferta cultural contará con una nueva sala de calidad, para acoger espectáculos diversos.*

## Sormen gunea

Herriko elkarteen beharrak asetzeko egokia ez ezik, sortzaile eta artistentzat beren entsegu zein sorkuntza prozesuak garatzeko erreferentziazko gunea izatea nahi luke udalak.

***Espacio creativo.** Se espera que el nuevo espacio, además de satisfacer las necesidades de las asociaciones locales, sea para creadores/as y artistas un espacio de referencia tanto para sus ensayos como para sus procesos creación.*

## Lorategia eta kantina

Komentuko lorategian askotariko zuhaiztiak eta guneak sortzea da asmoa. Horrekin batera, kantina bat jarriko da bertan.

***Jardín y cantina.** La idea es que el jardín del convento dé lugar a bosquetes y espacios variados. También se construirá una cantina.*

## Interpretazio zentroa

Komentuko ondareari eta bertan bizi ziren mojen bizimoduari buruzko interpretazio zentroa sortuko da, Zumaiako historiarekin lotuta.

***Centro de interpretación.** Se creará un centro de interpretación del patrimonio del Convento y del modo de vida de las monjas que vivían en él, en contacto con la historia de Zumaia.*

## Aterpetxea

50 pertsonarentzako lekua izango du aterpetxe berriak. Gainera, bisitarien eta Komentuaren arteko loturak sortzeko moduak landuko dira.

***Albergue.** El nuevo albergue tendrá capacidad para 50 personas. Además, se trabajarán formas de crear vínculos entre los y las visitantes y el Convento.*

2023 maiatza - 2023 urria

**Teilatua berritu: oraingo estalkia bota, paramentuen altuera igo eta teilatu berria eraiki**

*Renovación del tejado: derribar la cubierta actual, elevar la altura de los paramentos y construir el nuevo tejado*

2023 maiatza - 2024 otsaila

**Barne antolaketa berria osatu: horma berriak eta sabai faltsuak**

*Completar la nueva organización interna: nuevas paredes y falsos techos*

2024 martxoa - maiatza

**San Jose kalea eta Komentua lotuko dituen pasabidea eta eskalinata eraiki**

*Construcción de la escalinata y la pasarela que unirá la calle San José con el Convento*

2024 maiatza - urria

**Akaberak, errematea eta garbiketa**

*Acabados, remate y limpieza*

# Kaleko argiteriaren eraginkortasun energetikoa hobetzen

1.170.000 euro

Dagoeneko martxan dago kaleko argiteriaren eta semaforoen eraginkortasun energetikoa hobetzeko bigarren fasea (2016an hasi zen lehenengoa). Lan horiei esker, energia kontsumoan % 75 aurreztea lortuko da, eta 446,41 tona CO2 gutxiago isuriko dira.

Dagoeneko aldatu dira semaforo guztien argiak, eta datozen hilabeteotan 1.503 kale argi LED sistemara aldatuko dira. Guztira 2.344 kale argi daude Zumaian, eta gainerakoak aurreko fasean aldatu ziren.

Proiektuaren helburua da, herriko energia kontsumoa murrizteaz gain, eraginkortasun energetikoa bultzatzea, baita ingurumenari eragindako kalteak gutxitzea ere. Gainera, Zumaiako Udalak energia kontsumo eta gastuan nabarmen aurreztuko du.

*Ya está en marcha la segunda fase de mejora de la eficiencia energética del alumbrado público y de los semáforos, cuya primera fase comenzó en 2016. Estos trabajos permitirán un ahorro del 75 % en el consumo de energía y reducirán las emisiones de CO2 en 446,41 toneladas.*

*Ya se han modificado las luces de todos los semáforos y en los próximos meses se cambiarán 1.503 farolas al sistema LED. En total hay 2.344 farolas en Zumaia, y el resto se modificaron en la fase anterior.*

*El objetivo del proyecto es, además de reducir el consumo energético de la localidad, favorecer la eficiencia energética, así como minimizar los daños al medio ambiente. Además, en el Ayuntamiento de Zumaia supondrá un importante ahorro en el consumo y gasto energético.*



## Finantziazioa eta dirulaguntzak
Financiación y subvenciones



**580.000 euro**
DIRULAGUNTZA: IDAE, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Erakundea

**597.000 euro**
Zumaiako Udalaren aurrekontu propioa

## Potentzia
Potencia




## LED teknologia
Tecnología LED

**Azken belaunaldikoak eta eraginkortasun handikoak**
*De nueva generación y de alta eficiencia*

**Driver elektroniko programagarria, argi fluxua ordutegiaren eta bide motaren arabera egokitzeko**
*Driver electrónico programable, para ajustar el flujo luminoso en función del horario y tipo de vía*

## Onurak
Beneficios

**% 75 ↓**
**Energia kontsumoa**
Consumo energético

**446,41 t $CO_2$**
**gutxiago atmosferara**
menos a la atmósfera




## Branka eraikinean hobekuntzak

45.000 euro

Suteak detektatzeko sistema eta larrialdiko argiteria araudira egokitu dira. Eskailera irisgarritasun legedira egokitzeko lanak ere egin dira. Obraren % 75 Foru Aldundiko dirulaguntzekin estali da.

***Mejoras en el edificio Branka.*** *El sistema de detección de incendios y el alumbrado de emergencia se han adaptado a la normativa. Además, la escalera ha sido reformada según la legislación de accesibilidad.*



## Larretxon espaloi berria

41.200 euro

Pareko espaloia konpontzeko lanak amaitu eta gero, Larretxo auzunean espaloi berri bat egin da. Hori baino lehen eremua ez zegoen behar bezala urbanizatuta.

***Nueva acera en Larretxo.*** *Una vez finalizadas las obras de reparación de la acera de enfrente, en el barrio de Larretxo se ha creado una nueva acera. Antes la zona no estaba debidamente urbanizada.*



## Sagarbideko gimnasioko sabaia konpontzea

29.500 euro

ZHEko gimnasioko sabaia egoera kaskarrean zegoen, eta erabat berritu da. Gainera, gimnasio barruko egokitzapen akustikoa lortu da, eta eraginkortasun energetikoa hobetu.

***Reparación del techo del gimnasio de Sagarbide.*** *El techo del gimnasio de ZHE, que se encontraba en mal estado, ha sido totalmente renovado. Además, se ha conseguido una adaptación acústica dentro del gimnasio y una mejora de la eficiencia energética.*



## Herri bideak konpontzea

27.200 euro

Oikiatik Ibañarrietara joateko herri bidea konpondu du udalak, bai eta Basustagain inguruan dauden Xoxokua eta Otalora baserrietara doan bidea ere. Azpialdea gogortu eta hormigoia bota da bi bideetan.

***Reparación de vías públicas.*** *Se ha mejorado el camino de acceso al barrio de Ibañarrieta desde Oikia, así como el que conduce a los caseríos Xoxokua y Otalora, situados en la zona de Basustagaina. Se ha endurecido la parte inferior y se ha procedido al vertido de hormigón en ambas vías.*



## Basustabideko espaloia zabaltzea

17.500 euro

Oinezkoei lehentasuna emateko eta lekuak irisgarritasun baldintzak betetzeko, Basustabideko pasabide azpiko espaloia zabaldu da.

***Ampliación de acera en Basustabidea.*** *Para dar prioridad y accesibilidad a los peatones, se ha ampliado la acera bajo el paso de Basustabidea.*



## Hogarrean sarrera irisgarria

5.000 euro

Gizarte Zentroko sarrerako atea irisgarria izan dadin, sistema automatikodun atea jarri da.

***Entrada accesible en el Hogar.*** *Para hacer accesible la puerta de entrada al Hogar, se ha instalado una puerta con sistema automático de apertura.*



## Alde zaharreko zoladuran konponketak

Udal brigadak Kale Nagusian kaltetuta zegoen zoladura konpontzen jarraitu du. Ibilgailuen zirkulazioak kalteak eragiten ditu errepidean, eta brigadak mantentze lanak egin behar izaten ditu aldizka.

***Reparaciones en el pavimento del casco antiguo.*** *La brigada municipal ha continuado con la reparación del adoquinado de la Calle Mayor. El tráfico causa daños en la carretera, por lo que la brigada suele tener que realizar tareas de mantenimiento periódicamente.*



## Txomin Agirre kaiko zoruaren egoera hobetzea

Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzak Txomin Agirre kaian hondatuta zegoen eremua saneatu eta zorua konpondu du azken asteotan.

***Mejora del estado del firme del muelle Txomin Agirre.*** *La Dirección de Puertos del Gobierno Vasco ha saneado en las últimas semanas la zona degradada del muelle Txomin Agirre y ha reparado el estado del firme.*

# ZOZ sarea 500 etxetara iritsi da

**KALITATEZKO ZUNTZ OPTIKOA BERTAKO OPERADOREEKIN**
*FIBRA ÓPTICA DE CALIDAD CON OPERADORES LOCALES*



**Zatoz guztion sarera**

Informazio gehiago:
**labur.eus/ZOZ**

fundació guifi·net

Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA



# egutera

ZUMAIAKO ENERGIA KOOPERATIBA

**Egotetik egitera goaz.**
Zumaian bertan **eguzki energia** sortuko dugu.

**Eman izena orain, eta bazkide egiteko lehentasuna izango duzu**

**labur.eus/egutera**
Eman izena inolako konpromisorik gabe

ekiola · Zumaiako Udala · ZUMAIA BIZITZEKO DA · GERTU · zumaiena

# Fototeka

Nolakoa zen garai batean Zumaia? 90eko hamarkadan, galdera horri erantzun nahian, argazkiak biltzen hasi ziren Zumaiako Udala eta garai hartako argazki elkartea. Urte batzuk geroago, 2005ean, argazki haiek katalogatu eta digitalizatzeari ekin zion, Eusko Ikaskuntzarekin lankidetzan. Gaur egun, Zumaiako historia politiko, sozial eta kulturalaren lekukotza eskaintzen digun argazki bilduma ederra du fototekak. Artxiboa Eusko Ikaskuntzaren webgunean egon da orain arte, eta, orain, webgune propioan jaso dira argazki guztiak.

Ia 800 argazki daude bertan, garai askotakoak eta gai askori buruzkoak. Gehienak 1870 eta 1977 urte bitartekoak dira, eta arloka banatuta daude: antropologia, etnografia eta folklorea; arteak; biografia; biologia eta geologia; ekonomia; erlijioa eta teologia; garraiobideak eta komunikazioak; geografia eta lurraldearen antolamendua; gizarte eta giza zientziak, eta jokoak, kirolak eta ikuskizunak.

Zumaiako Udalak fototeka osatzen jarraitu nahi du. Horregatik, herritarrei eskatu nahi die, etxean argazki zaharrak baldin badituzte, gehitu ditzatela artxibora. Horretarako, Kultura Sailarekin harremanetan jartzea besterik ez dute.

*¿Cómo era el Zumaia de antaño? En la década de los 90, el Ayuntamiento de Zumaia y la asociación de fotografía de entonces comenzaron a dar respuesta a esta pregunta y a recopilar fotos. Más adelante, en 2005, el Ayuntamiento y la fundación Eusko Ikaskuntza catalogaron y digitalizaron la colección. Así, a día de hoy, la fototeca cuenta con una colección de fotografías que nos ofrecen un testimonio de la historia política, social y cultural de Zumaia. El archivo ha permanecido hasta ahora en la web de Eusko Ikaskuntza, y ahora el Ayuntamiento ha reunido toda su colección de fotografías en su propia web.*

*En la actualidad se pueden encontrar casi 800 fotografías de diferentes épocas y temas diversos. La mayoría son de entre 1870 y 1977 y están organizadas en: antropología, etnografía y folclore; artes; biografía; biología y geología; economía; religión y teología; transportes y comunicaciones; geografía y ordenación del territorio; ciencias sociales y humanas, y juegos, deportes y espectáculos.*

*El Ayuntamiento quiere seguir completando la fototeca, por lo que hace un llamamiento a la ciudadanía para que aporten al archivo las fotos antiguas que tienen en sus casas. Para ello, deberán ponerse en contacto con el Departamento de Cultura.*

**Fototekaren webgunea:**
**www.fototeka.zumaia.eus**












# ATZO GAUR DA
# Mostradore atzean

Abenduaren 15ean, Maitane Subijana eta Miren Osa ikerlariek *Mostradore atzean* aurkeztu zuten, Zumaiako emakume merkatarien eta ostalarien historia azaleratzeko azterlana (1940-2020), Emakumeon* Etxean. Zortzi hamarkada horietan herriko saltoki eta tabernetan lan egin zuten emakumeen historia jaso dute, baita denbora tarte horretan herrian zabaldutako komertzio eta ostalaritza establezimenduen zerrenda osatu ere. Zumaiako Udaleko Berdintasun Sailaren beka bati esker egin dute lana.

Subijana eta Osak aurkezpenean azaldu zutenez, “gaur, hemen, ia-ia desagertu dira estanbreak, desagertu dira ultramarinoak, desagertu da Konpitto zaharra, desagertu da Gabina Urruzuno, Pepatxo, Paka, Elenaneko denda, Karmen Balenziaga eta beste hainbat eta hainbat”. Jada ez dauden horiei guztiei dagokien lekua ematea izan da ikerlanaren asmoetako bat, “memoriak egiten baitu gaur garena”. Haien hitzetan, “emakume haiek josi dituzten hariak, sortu dituzten sareak, elkarri eman dioten babesak... sostengatu dute hein handi batean Zumaia”. Ikerlana liburuxka batean bildu dute, eta jasotako testigantzak podcast formatuan entzun daitezke.

Helburu hauek izan dituzte nagusiki ikerketa lanean: 1) Zumaiako emakume merkatari eta ostalariak identifikatzea, zehazki 1940tik 2020ra bitartean aritutakoak, haien jarduna eta egunerokoa ezagutzeko; 2) emakume horiek herriari egindako ekarpena jasotzea, Zumaiako memoria historikoa berreraikitzeko testigantzak biltzea, eta emakume horiei aitortza egitea; eta 3) gaur egungo herritarrei emakume haien berri ematea.



Argazkia: Baleike

Bestalde, zenbait hipotesitatik abiatuta egin dute lan, eta guztiak baieztatu dituzte ikerlanean:

- Zalantzan jartzea emakumeak etxean egon izan direlako ustea, eta lan produktiboetan izan duten garrantzia nabarmentzea, lan erreproduktiboetan izan dutenaz batera.
- Mostradore atzean aritu diren emakumeek produktuak saltzetik haratagoko lana egin dute.
- Dendak emakumeen arteko topagune izan dira. Etxetik erostera ateratzen zen emakume haren konplize bilakatu zitekeen saltzailea bera. Sostengu emozionala ematetik hasi (elkar entzutea, elkarren kezkak konpartitzea...) eta trukea errekurtso gisa erabiltzeraino (erosleak dirurik ez zuen uneetan, konfiantza premisa gisa jarriz).
- Emakumeak, behin ezkonduta, kaletik desagertzen ziren.
- Demografia aldatzeak eta kapitalismoaren eraginak Alde Zaharraren bilakaeran izan duen zeresana. Industrializazioaren ondorioz,

Alde Zaharrean demografia galdu du (1960-1975), eta gaur egungo kapitalismoaren joerek ere zerikusi zuzena dute (hipermerkatuak agertzea, Internet, erosketak egiteko ohiturak aldatzea…).

Horiek horrela, aurkezpenean zenbait ideia nabarmendu zituzten.

*Maitane Subijana y Miren Osa presentaron el 15 de diciembre el estudio "Mostradore atzean, un estudio sobre la historia de las mujeres comerciantes y hosteleras de Zumaia (1940-2020)". Han recogido la historia de las mujeres que trabajaron en comercios y bares de la localidad durante esas ocho décadas, así como la lista de establecimientos comerciales y hosteleros que se desplegaron en la localidad durante ese periodo de tiempo. El trabajo se ha desarrollado gracias a una beca del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Zumaia.*

*Subijana y Osa explicaron en la presentación que "hoy, aquí, prácticamente han desaparecido los estambres, han desaparecido los ultramarinos, ha desaparecido Konpitto zaharra, ha desaparecido la tienda de Gabina Urruzuno, Pepatxo, Paka, Elenaneko denda, Karmen Balenziaga y tantas otras. Darles el lugar que les corresponde a todas aquellas que ya no están ha sido uno de los propósitos del estudio, ya que "la memoria hace lo que hoy somos". Tal como dijeron, "los hilos que han cosido, las redes que han creado, el apoyo que se han dado… han sustentado en gran medida a Zumaia". El estudio ha sido recopilado en un pequeño libro, y han recogido los testimonios en formato podcast.*

*Los objetivos de la investigación han sido: 1) identificar a las mujeres comerciantes y hosteleras de Zumaia, concretamente las que trabajaron de 1940 a 2020, para conocer su actividad y su día a día; 2) recoger la aportación de estas mujeres a Zumaia y testimonios para la reconstrucción de la memoria histórica del pueblo, y hacer el reconocimiento que merecen; y 3) dar a conocer a la ciudadanía actual a estas mujeres.*

*Y han trabajado sobre varias hipótesis, todas ellas corroboradas en el estudio:*

- *Cuestionar la creencia de que las mujeres han estado en sus casas, y destacar su papel, no sólo en los trabajos reproductivos, sino también en los trabajos productivos.*
- *El trabajo realizado por las mujeres que han estado detrás del mostrador va más allá de la mera venta de productos.*
- *Las tiendas han sido un punto de encuentro entre mujeres. La vendedora podía convertirse en cómplice de esa mujer que salía de casa a comprar. Desde dar apoyo emocional (escucharse, compartir preocupaciones…) hasta utilizar el intercambio como recurso (en momentos en los que la compradora no tenía dinero, poniendo como premisa la confianza).*
- *Una vez casadas, las mujeres desaparecían de la calle.*
- *El cambio demográfico y la influencia del capitalismo han influido en la evolución del Casco Viejo. Como consecuencia de la industrialización, la Parte Vieja ha sufrido una pérdida demográfica (1960-1975), y las tendencias del capitalismo actual también están directamente relacionadas (aparición de los hipermercados, internet, cambios en los hábitos de compra).*

*Así, en la presentación destacaron varias ideas.*



## Mostradore atzean, baina jabetzarik gabe gehienetan

Aztertutako aldian, guztira 204 komertzio egon dira Zumaian. Gaur egun ia guztiak pertsianak jaitsita dauzkate. Bi azterlariak ondorio honetara iritsi dira: askotan esan ohi da mostradore atzean emakumeak zeudela, emakumeen eramaten zutela "denden martxa", baina, zoritxarrez, jabetza eta paper ofizialak aztertuta, emakumezkoek zabaldutako negozioen kopurua % 39 bakarrik da.

Mostradore atzean emakumeak zeudela azpimarratzen zuen hipotesia egia bada ere, ikerketan argi gelditu da jabetzaren pribilegioa gizonezkoek eduki dutela.

Salbuespen bat ere aurkitu dute sektore jakin batean. Urteetan aurrera egin ahala, estetika zentroak etorri ziren. Hor jabetzan aldaketa bat ikusi dute. Sektore honetan emakumea "askeagoa" da, soldata propioa izateko eskubidea duena. Eta ikus daiteke estetika zentro gehienak emakumeek zabaldu zituztela. Estetika jakin bat eraman beharraren presioa ere hor sartzen da.

*En total ha habido 204 comercios en el periodo analizado en Zumaia. Hoy*



*casi todos están ya con las persianas bajadas. Han llegado a la conclusión de que muchas veces se dice que detrás del mostrador había mujeres, que eran ellas las que llevaban la marcha de las tiendas, pero desgraciadamente, analizando la propiedad y los papeles oficiales, sólo el 39 % eran negocios abiertos por mujeres. Así, aunque es cierta la hipótesis de que eran las mujeres quienes estaban detrás del mostrador, en la investigación ha quedado claro que el privilegio de la propiedad lo han tenido los hombres.*

*También han encontrado alguna excepción en un sector concreto. Con el paso de los años vinieron los centros de estética. Ahí han visto un cambio en cuanto a la propiedad. En este sector la mujer es más independiente, con derecho a un salario propio. Y se observa que la mayoría de los centros de estética fueron abiertos por mujeres. Ahí también entra la presión de tener que llevar una estética determinada.*

## Kasu askotan, “bigarren mailako langileak”

Beste ondorio bat ere atera dute. Emakumeak sektore askotan aritu badira ere, hein batean “bigarren mailako langileak” izan dira; hau da, negozioa zeraman gizonaren itzalpekoak. Eta horretan sektore batzuk oso nabarmenak dira; harategietan, adibidez, emakumeak ere aritzen ziren arren, oso argi uzten zen “benetako karnizerua” senarra edo aita zela, gizonak “erosten zuela txahala”.

Joskintzan ere, sektore feminizatuagotzat hartu arren, “benetako jostuna”, hau da, “sastrerua”, gizona izan ohi zen. Emakumeek garrantzi handirik gabeko lantxoak egingo zituzten, baina arropak egitearen “ohorea” gizonek zuten.

Ostalaritza, berriz, oso sektore maskulinoa izan da. Emakumeak berandu sartu ziren taberna barrenetara kontsumitzera, etxean egon behar zutelako. Aldiz, lanean bai, barra atzean emakumeak aritzen ziren.

*También han llegado a otra conclusión. Aunque las mujeres han estado presentes en muchos sectores, en parte han sido trabajadoras de segunda. Es decir, han trabajado bajo la sombra del hombre que “llevaba el negocio”. Y en ese sentido hay sectores que son muy marcados; por ejemplo, aunque hay mujeres en las carnicerías, se dejaba muy claro que el verdadero carnicero era el marido o el padre, que quien “compraba la ternera” era el hombre.*

*También en el sector de la costura, a pesar de estar considerado como un sector más feminizado, el verdadero modista, es decir, el sastre, solía ser hombre. Las mujeres hacían chapucerías o trabajos menores, y el privilegio de confeccionar la ropa lo tenía el hombre.*

*La hostelería ha sido un sector muy masculino. Las mujeres tardaron en entrar a consumir a los bares, porque tenían que estar en casa. Pero para trabajar, en cambio, no; había cantidad de mujeres trabajando detrás de la barra.*

## Zergatik zeuden emakumeak komertzioetan?

Komertzio asko familiakoak ziren, eta erabakia hartu gabe hasten ziren bertan lanean, halabeharrez. Haustura bat identifikatu dute, ordea, 60-70eko hamarkadetan jaiotako emakumeen kasuan.

Testuinguru aldaketa bat bizi izan zuten emakume haiek: bazuten etxetik kanpora lan egiteko eskubidea, baita ikastekoa ere. Eta hor errelebo falta identifikatu dute.

Kasu askotan, negozioa zeramaten gurasoak hildakoan, edo haiek negozioa utzitakoan, seme-alabek ez dute jarraitu nahi izan, nahiago izan dute 8 orduko soldatapeko lana. Beste kasu askotan, gurasoek edo amek beraiek ez dute nahi izan bizimodu hori beren seme-alabentzat, “dendako martxa sakrifikatuegia” delako.

*Muchas veces eran comercios familiares, en los que las mujeres empezaban a trabajar sin haber tomado propiamente la decisión. Sí se ha identificado una ruptura en el caso de las mujeres nacidas en los años 60-70: tenían derecho a trabajar fuera de casa y a estudiar, y se produce una falta de relevo.*

*En muchos casos, al morir el padre y la madre, que llevaban el negocio, o al dejar aquellos el negocio, los y las hijas no han querido seguir, han preferido tener un trabajo asalariado con jornada de 8 horas. En muchos otros casos, han sido el padre y la madre los que no han querido ese modo de vida para sus hijos/as, porque “la marcha de la tienda es demasiado sacrificada”.*

## Zer ekarpen egin dute emakume horiek?

### EKARPEN SOZIALA

'Elkar zaintzea' eta 'babesa' aipatu dituzte elkarrizketatuetako askok. Askotan emakumeak etxeetan bakartuta egoten ziren zaintza lanetan, eta erosketak egiteko momentua etenalditxo egin eta arnasa hartzeko modu bat zen, beste emakume batzuekin elkartzeko topaleku ere bazirelako dendak.

### EKARPEN EKONOMIKOA

Herriko ekonomia sostengatzea; batez ere, babes edo laguntza ekonomikoa ematea, zaintzaren ikuspegiaren barruan. Alegia, zorretan ematea, garai latzetan ordaindu ezin zuenari konfiantzaz ematea, etab.

### EKARPEN ESPAZIALA

Hau da, begiz ikusten dena. Dendariek herriko kaleak bizirik mantendu dituzte.

---

### *APORTACIÓN SOCIAL*

*'Cuidado mutuo' y 'protección' son palabras que han utilizado muchas de las entrevistadas. Muchas veces las mujeres estaban aisladas en sus casas realizando tareas del cuidado, y el momento de hacer la compra era una especie de respiro, ya que las tiendas eran también lugares de encuentro con otras mujeres.*

### *APORTACIÓN ECONÓMICA*

*Sostener la economía local, especialmente el apoyo económico dentro de la perspectiva de cuidados. Es decir, conceder productos "en deuda", apoyar a familias que no podían pagar en tiempos difíciles, etc.*

### *APORTACIÓN ESPACIAL*

*Esto es, lo que se ve visualmente. Las tiendas han mantenido vivas las calles.*










**Liburuxka irakurtzeko edo podcasta entzuteko, jo hona: www.labur.eus/mostradoreatzean**

# negua

## zumaiako aita mari aretoan



URTARRILAK 7 | 17:00

### Narzis@

BOROBIL



URTARRILAK 8 | 19:00

### Gospel klasikoak

GOIKO GELA



URTARRILAK 13 | 20:00

### FutbolisTOK

ZUHAITZ GURRUTXAGA
*SARRERAK PRESENTZIALKI SALDUKO DIRA.
*Algorri taldeak antolatutako ekitaldia.*



URTARRILAK 15 | 12:30 / 16:30

### Munduari itzulia 80 egunetan

GLU GLU



URTARRILAK 20 | 20:00

### TOTO

HIKA



OTSAILAK 3 | 20:00

### Hondamendia

ARTEDRAMA



OTSAILAK 20 | 15:00 / 17:30

### Urteak bete, abenturak bizi

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS
*ZUMAIENAN.
*LASTER INFORMAZIO GEHIAGO.



MARTXOAK 3 | 20:00

### Yerma

LA DRAMÁTICA ERRANTE
EUSKARAZ



MARTXOAK 17 | 20:00

### AMAraun

LANKU



MARTXOAK 19 | 12:00

### Ahoa bete hortz

EKAIN PAILAZOA

- Helduentzako antzerkia
- Haur eta familia antzerkia
- Kontzertuak eta musika ikuskizunak

**SARRERAK:**
> sarrerakzumaia.eus
> Turismo bulegoan
> Aita Mariko leihatilan

Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA

# elkarri entzun

ehbildu

**Zarataren gainetik, bi eredu**

Politikan zarata da gehien jasotzen duguna, eta hauteskundeak hurbildu ahala zarata handitzen hasi da. Aurretik ere esan izan dugu: EAJk oposizioa egiteko erabili duen ereduak gutxi du mamitik eta asko zaratatik. Horren adibide, 2023rako aurrekontuak: EAJk ez du lanketarik egin, ezta udal gobernuari proposamenik helarazi ere. Horren ordez, tarteka atera ohi dituen oharrak publikatzen jarraitu du.

Horren adibide, abenduko zubiaren ondoren ateratako oharra, Kiroldegiaren egutegian jai egunek ordutegia murriztea ekarri zutela esanez. Haien esanetan, udal gobernu honek zerbitzu publikoetara bideratutako inbertsioa igo du, baina zerbitzua murriztu. Zarata aterata dago, baina apur bat aztarka egitea bakarrik behar da (zerbitzu horien erabiltzaile izatea nahikoa da, askotan) argudioa desmuntatzeko: legealdi honetan Kiroldegiaren ordutegia zabaldu egin da. EAJren mandatupean urtean 4.374,5 orduko zerbitzua ematen zen; EH Bildu alkatetzan dagoenetik, berriz, urtean 4.431,5 ordukoa. Alegia, 57 ordu gehiago urtean. Liburutegiaren kasuan ere, gobernu honek ordutegia zabaldu du.

2023ko aurrekontuekin lotuta ere EAJk kezka adierazten zuen, zerbitzu publikoetara bideratzen den inbertsio kopurua igotzeak egoera ekonomikoa arriskuan jartzen omen duelako. Kasu honetan ere aztarka gutxi egin behar da argudioaren ahuldadeak ikusteko: hilabete lehenago (soilik hilabete!) EAJk udal tasen izoztea defendatzeko publikoki esan zuen KPIak gora egin arren ez zela beharrezkoa tasak igotzea, udalaren egoera ekonomikoa ona delako.

Bistakoa denez, oharrak ohar, oinarrian bi eredu ezberdin daude. Zumaiako EAJ ohar hauekin bueltaka ari den bitartean, hilabeteotan argi gelditu da zein den EAJren eredua. Zerbitzu publikoetara bideratzen den inbertsioarekin eta horien kalitatearekin lotuta, puri-purian daukagu Osakidetzaren gaia, adibidez (osasun sistema publikoaren egoera okertu dela edonork daki, txanda baten edo froga baten zain dagoen edozeinek). Pandemia garaian azpimarratu genion osasungintzara bideratu beharreko inbertsioa indartzeko garaia zela, eta, orain, behar zenean zerbitzua ez indartzeagatik, zerbitzua eta langileak gainezka egiten ari dira. Fiskalitatearekin lotuta, berriz, EAJk Madrilen hitzartu berri du enpresa energetiko erraldoiei zergarik ez igotzea (noiz eta horien irabaziak inoiz baino handiagoak eta herritarron fakturak inoiz baino garestiagoak direnean!).

Zarataren gainetik, EAJ eta EH Bilduren ereduen arteko aldea gero eta nabarmenagoa da, eta alderaketa hori gelditzeko etorri da. Gero eta zarata gehiago beharko du EAJk, mamia estaltzeko. Mamira (eredura, programara) joz gero nabarmena delako herritarren interesen gainetik beste boteretsu batzuenak lehenesten dituela.

**Lehenik eta behin, Urte Berri On denoi.**

EAJ-PNVk agintaldiko azken aurrekontuei ezezkoa bozkatu du.

2023ko aurrekontuetarako inbertsioen erdia 2022an gauzatu ez diren proiektuei dagokie. Esanguratsuenen artean: geltokiaren auzoa berrurbanizatzea, Juan Belmonteko ur-hornidura, San Jose auzoko etxeetan igogailuak jartzeko obrak edo kale-argiteria berritzea. Eta EAJ eta EH Bilduk adostutako Marianton parkearen estalpea ere 2023rako gelditzen da.

2022ko proiektuen gauzatze-maila % 20ra nekez iritsi dela ikusiz, 2023rako aurrekontuak ez zaizkigu egingarriak eta errealistak iruditzen, baizik eta hauteskunde-giroari dagozkionak eta EH Bilduk erakutsitako kudeaketa-gaitasunetik haratago daudenak.

Zumaiako historiako aurrekontu handienak izan arren, ez dute herritarrentzako premia larririk asetzen, hala nola etxebizitza. Adierazgarria da aurrekontuko 23,5 milioi euroetatik % 0,35 baino ez bideratzea etxebizitzara, alokairua sustatzeko programa batera, hain zuzen ere. Ez dago besterik.

Zenbait proiekturen alde bakarreko garapena salatzen dugu; adibidez, Marianton parkearen estalkia, kiroldegiaren eraberritzea eta Erkibe eraikina eta ingurua garatzeko proiektuak.

EH Bilduren gobernuaren azken urteetako gastuaren kudeaketak izan duen bilakaerak kezkatzen gaitu (pertsonalean soilik ia 2 milioi euroko igoera izan da 2019tik), eta ez da islatu azpikontratazioaren jaitsieran. Gainera, zerbitzuen bikoiztasunak aurki ditzakegu, hala nola Berdintasun teknikariarena eta Emakumeon Etxeko dinamizatzailearena, edo Zkoop coworking proiektuarena, gure iritziz eskualde mailan garatu beharko litzatekeena UKUEren bidez, jakinda urtero UKUEri 180.000 € bideratzen dizkiogula enpresa-garapenerako.

Nabarmena da udal gobernuak bere gehiengo absolutuarekin nahi duena egiteko bermea duela. Baina, agintaldi hasieran adierazitako elkarlanerako deia eta eskua luzatzea non gelditu diren jakin nahiko genuke.

*Conclusión: estamos ante un presupuesto de postureo, electoralista, que supera la capacidad de gestión de EH Bildu. Insistimos en denunciar el desarrollo unilateral de los proyectos y las inversiones, sin contar con la ciudadanía ni con sus representantes en la oposición.*

2023aren hasieran gaude, eta urte honek aldi berri bat irekiko du. Pandemiak eta Ukrainako gerrak bereziki markatutako legealdi baten amaierara iristen ari gara, eta egoera horiek ondorio ugari ekarri dizkie herritarrei, batez ere osasunari eta ekonomiari dagokienez, oso egoera konplexu eta zailean kokatuz.

*Los socialistas desde el Gobierno del Estado, el Gobierno Vasco, Diputación y Ayuntamiento hemos trabajado duramente para no dejar a nadie atrás y las políticas sociales aplicadas a la ciudadanía han sido un sello indiscutible. A parte de los descuentos para el transporte de la ciudadanía, el recibo de la luz, la gasolina y muchas más, otras acciones han llegado a Zumaia también con una apuesta clara por el municipio y sus vecinos y vecinas.*

*Así es preciso destacar las subvenciónes de 2.8 millones de euros por parte del Gobierno de España para hacer posible la reforma del Convento, después de tantos años, que revitalizará todo el barrio y podrá ser disfrutado por todos los y las zumaiarras y los 1.2 millones de euros provenientes del departamento de turismo de Gobierno Vasco en manos del socialista Javier Hurtado para desarrollar el proyecto museístico del Centro de interpretación Algorri y el proyecto previsto para Moilaberri sin recurrir a recursos propios del Ayuntamiento (ambas en el marco de los Fondos Europeos Next Generation); o la subvención por parte del departamento de movilidad de la Diputación que dirige Rafaela Romero (PSE-EE) de 66.000 para la vía ciclista del barrio de Aita Mari por poner algunos ejemplos.*

Zumaiaren eta zumaiarren aldeko apustua argia da. Itxaropenez beteriko besarkada jaso ezazue, eta edozer behar duzuela, jarri gurekin harremanetan: arritxu-maranon@socialistasgipuzkoanos.com e.mailera idatzita edo 943455655 telefonora deituta.

# KLISK!
# KLISK!
# KLISK!




**1. Anari, 'Gariz eta goroldioz'**
Negu giroa epeltzeko, kultur ekitaldi ugari izan dira abendu honetan. Anari Alberdi kaleratu berri duen *Gari eta goroldiozko* eleberriaren inguruan aritu zen liburutegiko ganbaran, Alex Gurrutxagak gidatuta.

**2. Munduari itzulia**
Zumaiako haurrek Julio Verneren *Munduari itzulia 80 egunean* eleberrian oinarritutako bertsio libreaz gozatu ahal izan zuten urtarril erdialdean.


3



**3. Gospela euskaraz**
Urtarrilarekin batera Goiko Gela boskoteak gospela ekarri zuen Aita Mari aretora. Musika modalitate hori euskaraz ere abestu daitekeela erakutsi zuten zumaiarren aurrean.

**4. Izotz parkera irteera**
Aurten ere Ludotekako haurrek urteroko bisita egin dute Txuri Urdin izotz parkera.

**5. Kimikarekin jolasean**
Urtero bezala, Zumaiako haurrek kimika ikasteko aukera izan zuten neguko oporretan, *Kimikarin* tailerretan. 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekimena da eta zientziarekiko ikusmina piztea du helburu.




**6. Bizikletan adinik ez**
*Bizikletan adinik ez* egitasmoa Zumaian izan zen joan den urrian. Herriko adineko pertsonak kaleetan barrena ibili ziren trizikloetan. Eskoletako ikasleek ere parte hartu zuten dinamikan.

**7. Yayo Herreroren bisita**
Yayo Herrero antropologo eta ikerlariaren hitzaldiak txiki utzi zuen Emakumeon* Etxea. Sistema kapitalistaz, haren mugez eta aberastasunaren banaketaz aritu zen.













Argazkia: Baleike






# OTSAILA

**3, OSTIRALA**
ANTZERKIA
**HONDAMENDIA**
ARTEDRAMA
**20:00** Aita Mari aretoa

**4, LARUNBATA**
KANTU KALEJIRA
**BEHEKO PLAZA ABESBATZA**
**18:00** Beheko Plaza

**9, OSTEGUNA**
ESKOLA FEMINISTA
**FEMINISMOAREN HASTAPENAK**
EMAGIN
**18:30** Emakumeon* Etxea

**9, OSTEGUNA**
ZINEFORUMA
**EL MENÚ**
*Ostarrena*
**19:00** Aita Mari aretoa

**14, ASTEARTEA**
IRAKURRI MATTE
**BAR GLORIA**
NEREA IBARZABAL
**18:00** Moila gela (Alondegia)

**14, ASTEARTEA**
ZINE EMANALDIA
**BILBAO MENDI FILM FESTIVAL TOUR**
*Inda Mendi elkartearen 50.urteurrena*
**19:30** Aita Mari aretoa

**15, ASTEAZKENA**
HITZALDI ZIKLOA
**EUSKARA, BESTELA EZ GARA**

**16, OSTEGUNA**
ESKOLA FEMINISTA
**FEMINISMOAREN HASTAPENAK**
EMAGIN
**18:30** Emakumeon* Etxea

**16, OSTEGUNA**
ZINE EMANALDIA
**BILBAO MENDI FILM FESTIVAL TOUR**
*Inda Mendi elkartearen 50.urteurrena*
**19:30** Aita Mari aretoa

**20, ASTELEHENA**
HAURRENTZAT IKUSKIZUNA
**PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS**
**15:00 eta 17:30** Zumaiena

**23, OSTEGUNA**
ZINEFORUMA
**DECISION TO LEAVE**
*Ostarrena*
**19:00** Aita Mari aretoa

**24, OSTIRALA**
LIBURU AURKEZPENA
**BERPIZTU**
KEPA JUNKERA
**19:00** Oxford aretoa

# MARTXOA

**1, ASTEAZKENA**
HITZALDI ZIKLOA
**EUSKARA, BESTELA EZ GARA**

**2, OSTEGUNA**
HITZALDIA
**MENDEBALDEKO SAHARAREN EGOERA**
TALEB ALISALEM
*Darahli elkartea*
**19:00** Aita Mari aretoa

**3, OSTIRALA**
ANTZERKIA
**YERMA**
LA DRAMÁTICA ERRANTE
**20:00** Aita Mari aretoa

**4, LARUNBATA**
ERAKUSKETA IREKIERA ETA BISITA GIDATUA
**ITZALPEKO EMAKUMEAK**
**11:00** Oxford aretoa

**5, IGANDEA**
**KONTZERTU SOLIDARIOA**
*Darahli elkartea*
**19:00** Zumaiena

**7, ASTEARTEA**
IRAKURRI MATTE
**AZKEN ETXEA**
ARANTXA URRETABIZKAIA
**18:00** Moila gela (Alondegia)

**7, ASTEARTEA**
CLOWN ANTZERKIA
**SEX O NO SEX**
VIRGINIA IMAZ
**18:30** Emakumeon* Etxea

**8, ASTEAZKENA**
**MARTXOAREN 8KO EKITALDIAK**

**9, OSTEGUNA**
ZINEFORUMA
**LA EMPERATRIZ REBELDE**
*Ostarrena*
**19:00** Aita Mari aretoa

**11, LARUNBATA**
BAKARRIZKETA
**MAGMA MIA**
BEATRIZ EGIZABAL
**19:00** Emakumeon* Etxea

**14, ASTEARTEA**
SOLASALDIA
**EMAKUMEAK GARAI BATEAN ETA GAUR EGUN MENDIAN**
AMAIA ARANZABAL, MONTSE LASTERRA ETA MAIALEN ROJO
*Inda Mendi elkartearen 50.urteurrena*
**19:30** Aita Mari aretoa

**16, OSTEGUNA**
HITZALDIA
**SILVIA VIDAL ESKALATZAILEA**
*Inda Mendi elkartearen 50.urteurrena*
**19:30** Aita Mari aretoa

**17, OSTIRALA**
IKUSKIZUNA
**AMARAUN**
LANKU
**20:00** Aita Mari aretoa

**19, IGANDEA**
HAURRENTZAT IKUSKIZUNA
**AHO BETE HORTZ**
EKAIN PAILAZOA
**12:00** Aita Mari aretoa

**26, IGANDEA**
IKUSKIZUNA
**GO!AZEN**
**18:00** Zumaiena

**30, OSTEGUNA**
BAKARRIZKETA
**DESPOTORRE**
RAQUEL TORRES ETA ANE LINDANE
**19:00** Emakumeon* Etxea

**31, OSTIRALA**
KONTZERTUA
**SONAKAY**
**20:00** Aita Mari aretoa

# ERAKUSKETAK

OXFORD ARETOAN

**OTSAILAK 3-17**
Inda Mendi elkartearen 50. urteurrena

**MARTXOAK 4-26**
Itzalpeko emakumeak

ALONDEGI SARRERAN

**OTSAILAK 3-28**
Inauterietako kartel lehiaketako bilduma

# FESTAK ETA DEIALDIAK

**OTSAILA-MARTXOA**
INDA MENDI ELKARTEAREN 50. URTEURRENA

**OTSAILA-MARTXOA**
'EUSKARA, BESTELA EZ GARA' HITZALDI ZIKLOA

**OTSAILAK 17-20**
INAUTERIAK

**OTSAILAK 25**
XXXVIII. HERRI LASTERKETA

**MARTXOAK 8**
EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

**Instagram: @ZumaiAgenda**
**Twitter: @ZumaiAgenda**
**Facebook: Zumaia Agenda**